

# MENO PAU SIA

## Bagara Nor

«Hizkuntza-  
eskubideak eskubide  
sozialen parte dira»

10 | Herriak

## 24. Korrika



Korrikak  
Uribe Kosta  
astindu du

20-23 | Hirudika

## Subflubiala

Artaza-Romoko  
ikasleen  
lekualdatzea

26-27 | Hezkuntza

ETOR  
ZAITEZTE!

# KANPOMARTXO 2026

**11:00 Trikitilariak eta pandero joleak:**  
Erandioko Musika Eskola eta  
Talaurden Taldea

**12:00 Dantzariak:**  
Goialde, Trabudu eta Uztargi

**13:00 Mendibaiarte abesbatza**

**13:30 Bertsolariak:**  
Inazio Vidal eta Alaia Martin

**15:00 Herri Bazkaria**

**16:00 Umeentzako erromeria**


**16:30 Kantagunea**

**18:00 Erromeria : Luhartz**

**Egunean zehar: Puzgarriak, jolasak,  
lehiaketak, zozketak...**

**ASUA ERANDIO**

**MAIATZAK 10**



Laguntzaileak:

ALBE - AUZOKOA HERRIKOI ELKARTEA  
MENDIBAIARTE ABESBATZA - GURASO ELKARTEA  
DANTZA TALDEAK - ERANDIOKO KANTAGUNEA  
ASUAKO JAI BATZORDEA - APURTUARTE  
ASTRABUDUA KANTETAN

Babesleak:

Antolatzailea:  
BERBOTS  
ERANDION EUSKARAZ



**E!**  
Erandio  
UDALA  
AYUNTAMIENTO

**Bizkaia**  
foru aldundia  
diputación foral

# Aurkibidea

- 4 Iritziak eta Puntua eta kontrapuntua
- 5 Erretratua
- 6 Sakonean: perimenopausia eta menopausia
- 10 Herriak
- 20 Hirudika: 24. Korrikak Uribe Kosta astindu du
- 26 Hezkuntza gehigarri berezia
- 32 Kakarraldone: zuhaixkak loretan bideak zuritzen
- 34 Txakomik
- 35 Trabuduren 50. urteurrena
- 36 Kirola
- 38 Hirukira Olgetan: Umeentzako denbora-pasak
- 40 Mundukatuak
- 42 Atzera Begira
- 43 Zozketak



# hiruka

**HIRUKA kooperatiba sozietatea**

**Helbidea:** Martikoena, 16, 2.a · 48992 GETXO

**e-posta:** hiruka@hiruka.eus

**Telefona:** 944 911 337

**Publizitatea:** Amaia Legarreta

**Erredakzioa:** Ander Zarraga, Izaro Garcia eta Hodei Torres.

**Diseinua eta maketazioa:** Artefakto Estudio

**Kudeaketa eta administrazioa:** Ziortza Merino

**Zenbaki honetako kolaboratzaileak:** Amaia Arriaga, Jondalar Sota, Gorka Mostajo eta Etzandarr Mendikaldea.

**Filmazioa eta Inprimategia:** Gertu Inprimategia

**Lege-gordailua:** BI-2022-2014

**ISSN:** 2386-98-95

**Ale-kopurua:** 5.000

**CC-BY-SA**

HIRUKAK ez du zertan bat etorri aldizkari honetan parte hartzen duten kolaboratzaileek adierazitako iritziakaz.

## Erakunde laguntzaileak



## Bizkaia

foru aldundia  
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du.

## Marian de la Fuente

AMAIA ARRIAGA Euskaltzalea



**K**orrikak, pozaldiarekin batera, beti ekartzen dit gogora Marian, esku artean boligrafoa eta koaderno txiki bat egitekoen zerrendarekin, ingurukoak mugiarazteko zuen abileziarekin eta bere bizipoz kutsakorrarekin. Nork-zer-noiz egindakoak, egitekoak gogorarazten. Limurtzaile galanta bera; nork esan ezetik haren eskariei! Konpromisoak hartzeko eta eskatzeko garaiotan, erreferentzia gogoangarria da niretzat. Neuk ere nahi nuke haren magiaren zati bat neureganatu inguruko euskaltzaleak eta Berbots-kideak konpromiso honetara lotzeko: euskararentzat toki erosoak sortzeko ahaleginari ekiteko denbora hartzea. Denbora hausnartzeko, elkartzeko, eztabaidatzeko, egiteko. Denbora.

Agur esan genionetik 8 urte beteko diren honetan, apirilaren 18an, eguerdian, beste gereziondo bat landatuko dugu Marianen omenez Akarlandan eta konpromisoak berresteko aukera izango dugu: berak ereindako bideari jarraituz, euskaltzaleen mugimendua indartzea, eta gurean, bereziki, Berbots Erandion Euskaraz elkarte biziberritzea. Horixe, bai, egin diezaiokegun omenaldirik onena. Eta maiatzaren 10ean, Asuan, Kanpomartxo berantiarrean elkartuko gara berriro bizipoza ospatzeko, elkarrekin, euskaraz.

## Ondarea gurea da

JONDALAR SOTA Historialaria



**A**zkenaldian gure inguruan ondarearekin lotutako hainbat gertakarik kezka piztu dute: Plentziako PiEren balizko eraispena, Berangoko XVI. mendeko errota baten suntsipena edota Getxoko jauregitxoaren auzia. Ez dira kasu isolatuak, baizik eta joera baten adierazle, non ondareak gero eta sarriago talka egiten duen interes ekonomiko, urbanistiko edo arau administratiboekin.

Ondarea ez da iraganeko objektu multzo hutsa; gure identitate kolektiboaren parte da, belaunaldiz belaunaldi transmititu den memoria materiala. Hori dela eta, haren babesa ezin da bigarren mailako kontua izan. Hala ere, askotan ikusten dugu babes juridikoa ez dela nahikoa, edo ez dela behar bezala aplikatzen.

Testuinguru honetan, dibulgazioak berebiziko garrantzia hartzen du. Herritarrek ondarearen balioa ezagutzen dutenean, haren defentsa ere sendoagoa bihurtzen da. Ezagutza da kontserbaziorako tresnarik eraginkorrenetako bat. Ezagutzatik sortzen da balioaren kontzientzia, eta hortik babesa.

Azkenik, galdera bat plazaratu beharra dago: nork erabakitzen du gure ondarearen etorkizuna? Hori ezin dateke soilik bulegoetan erabaki; komunitateak ere ahotsa izan behar du. Azken finean, ondarea guztiona da.

Puntua eta kontrapuntua **Udaberria**

# Loratu gaitzen



*Udazken negu sasoi  
beltzenetan beltzen  
joan dira ta hasi  
da argia heltzen,  
lorak loratzen eta  
zelaiak berdetzen,  
ta energiaz nola  
gabiltzan betetzen  
poztasunez gu ere  
loratu gaitzen.*

**PERU  
VIDAL  
GURRUTXAGA**  
Leioa

*Erre dugu izara,  
agur neguari.  
Hostoak dantzan daude,  
txoriak kantari.  
Loreek kolorea  
lehengo ilunari,  
eguzkia goi-goian  
energi emari:  
udaberria bai da  
udaren atari.*

**KIRMEN  
JAUREGI  
LOPEZ**  
Leioa



Koldo Zubimendi Alpinista

# «Mendian sortzen diren erlazioak oso bereziak dira»



**Fokuan egotea gehiegi ez gustatu arren, Koldo Zubimendi erandioztarrak mendiko ekipamendua utzi eta kazetarion galderak erantzun behar izan ditu azkenaldian.**

TESTUA: ANDER ZARRAGA • ARGAZKIA: HODEI TORRES ▶

**N**aturagaz harremana eta mendiak erakarrita, unibertsitatean zegoenean, futbola utzi eta gailurretara igotzen hasi zen Zubimendi. «Banuen zaletasuna, baina Monte Perdidorra neguan iparraldeko ertzetik egin nuen igoerak markatu ninduen; aldaketa bat izan zen eta hor erabaki nuen hori zela egin nahi nuena», gogoratu du mendizale erandioztarrak.

Orduetik, munduko gailurrik garaienetan zehar hainbat espedizio egin ditu, Himalaian, Andean, Alpeetan... Bere lehen zortzimilakoa 24 urte gaz igo zuen: Cho Oyu. «Hasieran ez genuen esperientziarik, eta ikasleak ginez, dirurik ere ez, enpresa batzuek diru apur bat ematen ziguten eta ahal genuen moduan egiten genituen espedizioak», gogoratu du.

Bere ibilbideko gailurretako bat 2024an lortu zuen, Karakorumeko (Pakistan) Kharut 2 (6.703 metro) mendi birjina ipar-mendebaldeko ertzetik estilo alpinoan igo zuenean. Tontorrera heldu ez zen arren, Vicente Barcena herrikidea ere izan zuen lagun igoera hartan.

Hain zuzen ere, Barcena eta Zubimendik Perun egindako espedizioa batean ezagutu zuten elkar eta azken honek azpimarratu bezala, «mendiak lagun minak eman dizkit, eta ez bakarrik Euskal Herrian, baita beste herrialde batzuetan ere: sukaldariak, enpresariak...». Hala ere, deitoratu du mendia asko masifikatu dela azken urteotan eta «altuera-turista» deitzen dituen sasi-alpinista horiek saihesten ahalegintzen dela dio.

Gaur-gaurkoz, alaba bi eta lana ditu, eta horrek abentura berriak antolatzea zailtzen dion arren, oraindik munduko gailurrak igotzeko espedizioak antolatzen jarraitzen du. Horrez gain, Astrabuduko kiroldegian dagoen rokodromoan, Atxazpe Mendi Taldeagaz eskalada ikastaroak ematen ditu Mintzalagunakaz batera: «Herrian euskara eta eskalada bultzatzeko proiektu polita denez, ezinezkoa zen ezetz esatea». ◀



**Menopausia:  
gorputza ulertzeko  
beste etapa bat**

The illustration shows a woman's profile on the right, with lines connecting various anatomical parts to a central brain diagram. The brain diagram consists of two brains: one on the left with a normal appearance, and one on the right with a question mark on its surface. Lines connect the brain to the heart, which is shown sitting on a bed. Other lines connect to the arm and hand, and the ear. The background is a colorful watercolor wash in shades of blue, green, yellow, and purple.

**Azken hilekotik urtebete bat igaro denean gertatzen da menopausia, baina horren aurretik prozesuak urteak hartu ditzake eta sintomak 60 baino gehiago izan daitezke, emakumearen arabera. Obulazioa eteten bada ere, erreportaje honetan elkarrizketatutako emakumeek azaldu dute menopausia hasiera berri bat bezala ere ulertu daitekeela.**

TESTUAK: **IZARO GARCIA, ANDER ZARRAGA**  
ARGAZKIAK: **HIRUKA ETA LAGATAKOAK** ▶

**H**ilekoaren behin betiko etetea da menopausia, eta 45 eta 55 urte inguruko emakume guztiei eragiten dien prozesu biologiko naturala bada ere, bakoitzak modu desberdinean bizitzen du. Dena den, badira ohiko seinale batzuk, eta, gehienetan, hilekoaren desorekagaz hasten dira. Miren Melendez ginekologoak honela deskribatu du prozesu honen hasiera: «Bat-batean, hilabete batean hilekoa falta zaigu, gero bueltatzen da... hori izaten da kontsultara etortzeko arrazoi nagusia». Gaineratu duenez, hortik aurrera, bestelako sintomak ager daitezke: beroaldiak, umore-aldaketak, suminkortasuna, lo egiteko zailtasunak edo askok «buruko lainoa» deitzen diotena ere izaten dute.

Horrenbestez, menopausia ez da egun batetik bestera gertatzen den zerbait, aldez aurretik, batzuetan luzea izan daitekeen perimenopausia izeneko prozesuagaz hasten da, baina, esan bezala, sintomak eta denborak emakume bakoitzaren arabera izaten dira. «Gorputza bere hurrengo etapaz ohartzen hasten den ueña da, eta obulutegien funtzionamenduaren amaiera dakar, beraz, gero eta modu ez-eraginkorragoan hasten dira funtzionatzen», laburbildu du Areetako Osakidetzako emagina den Elena Mena ginekologoak.

«Prozesu luzea izan daiteke: batzuetan buruko mina edo bularreko mina dugu eta ez dugu lotzen perimenopausiarekin, baina hilekoaren kantitatean eta maiztasunean aldaketa nabariak daude; fase honetan sintomatologia nahasiagoa da», erantsi du Saioa Hernandez psikologoak eta sexologoak. Nekea, loaren aldaketak eta tenperaturaren desorekagaz batera, ahoan, begietan edo baginan lehortasuna bezalako sintomak ere ohikoak izaten dira fase horretan. Horiez gain, bestelako arazoak ere egon daitezke; adibidez, nutrizioari eragiten diotena, hala nola glutenari intolerantzia garatzea bat-batean edo glukosa-pikoen ondorioz gozoa jateko gogo handia izatea.



Menopausia betean dauden emakumeek pairatzen dituzten nutrizio-arazoei buruzko hainbat argibide eman ohi ditu Olatz Bilbao nutrizionistak. Bere hitzetan, 60 sintoma baino gehiago egon daitezke, eta askok ez dute berehala identifikatzen zer gertatzen ari zaien. «Emakume askok esaten didate sintomak bat datozela azaltzen dieranekin, baina ez dakite menopausiarekin lotuta daudenik», dio. Gaineratu duenez, emakume gehienek kezka handienetako bat pisuarena da, baina hori zergatik gertatzen den jakiteko gorputzean gertatzen dena ulertzea funtsezkoa da: «Estrogenoak eta progesterona jaisten direnean, metabolismoa ere jaisten da, eta horrek aldaketak eragiten ditu gure gorputzetan»

Ildo berean, Bea Sever sexologoak azaldu du lehen obulutegietan pilatzen ziren estrogenoak gerriak pilatzen direla eta horrek gorputzaren forma aldatu egiten duela, eta horren eraginez, «emakume askok ez dute beren burua hain erakarri sentitzen».

Emozionalki ere ematen diren aldaketak oso nabariak direla nabarmendu du Hernandezek: «Gauzak intentsitate handiz bizitzen hasten gara. Nik nerabetasun berria deitzen diot, dena oso intentsua delako. Lehen, planoak ginen arlo batzuetan, eta orain sentimenduak 'flipatzeko' modukoak dira». Era berean, depresio txikiak, memoria-lapsusak eta sexuarekiko interes falta ere ez dira arraroak.

«Askotan pentsatzen dugu menopausia hormonetara mugatzen dela, baina benetan maila muskularrean eta funtzionalean ere aldaketa asko gertatzen dira», erantsi du Irati Larrazabal fisioterapeutak. Berak emakumeek bizi dituzten aldaketa fisikoetan jarri du fokua, eta azaldu du zoru pelbikoak ere aldaketak jasaten dituela, eta horrek ondorio zuzenak izan ditzakeela bizi-kalitatean. Inkontinentzia edo organoen jaitsiera (prolapsa) dira ohikoenetako batzuk. «Emakume askok pisu-sentsazioa sentitzen dute baginan, barruan zerbait izango balute bezala», aipatu du. Horrez gain, mikrobioman gertatzen diren aldaketek infekzio-arriskua handitu dezaketela ere ohartarazi du, eta horrek ere fluxuan ere aldaketak eragintzake.

Alabaina, emakumeen gorputzek eta buruek bizi duten errusiar mendi hau ez da beti identifikatzeko erraza, emakumeen osasunari eragiten dioten beste hainbat kontutan bezala, informazio eta ikerketa faltagatik. «Ugalketa-aldetik kanpoko bizitzara igarotzeko pausoa da» azaldu du Melendezek. Hala ere, une konplexua izan daiteke, beste aldaketa askogaz batera etortzen delako. «Gorputzean aldaketak hasten dira, eta ez dira beti



**«Onartu behar dugu dena ez dagoela gure esku. Ez zaitetz errudun sentitu 10 kilo hartu badituzu, edo etxetik ateratzeko gogorik ez baduzu. Gorputzaren zikloak dira. Onartu dena ez dagoela gure esku eta gure ingurua ere moldatu egin beharko dela. Aldaketak ez du zertan borroka bat izan»**

SAIOA HERNANDEZ  
PSIKOLOGOA



**«Gorputzaren beste aldaketa bat da, pubertaroa bezala. Etapa berri bat, baina ez zertan negatiboa»**

IRATI LARRAZABAL  
FISIOTERAPEUTA



**«Hormonen desorekaren eraginez, serotonina jaisten denean, gure buruak azukre gehiago eskatzen digu hobeto sentitzeko, eta horrela sortzen da gurpila: azukre gehiago kontsumitzen dugu, baina aldi berean gutxiago erretzen dugu eta pisua irabazten dugu»**

OLATZ BILBAO  
NUTRIZIONISTA

gure gustukoak izaten; horrek frustrazioa sortzen du», gehitu du Menak.

Hernandez psikologoak deitoratu du duela urte batzuk arlo honetan zegoen egoera «negargarria» zela, baina gauza hobetzen joan dela: «Oraindik ez da behar bezala hitz egiten gaiari buruz, baina lehengoarekin konparatuta, badago mugimendua. Arazoa da askotan medikalizatu egiten dela, prozesu psikologiko edo meditatiboa lagundu beharrean. Gainera, ez da nahikoa ikertu».

**SEXUALITATEA EZ DA ETETEN.** Menopausia-gaz oso lotuta dagoen beste sintometako bat sexuarekiko interesa galtzea da. Hori faktore askok eragin dezaketela azaldu du Severrek. Batetik, orgasmoak lortzea zailagoa egiten da, eta horien intentsitatea ere jaitsi egiten da, eta, bestetik, «gure sexualitate-eredua oso estua da, penetrazioan zentratua, eta horrek presio handia sortzen du emakumeengan». Era berean, argitu du testosterona ere asko galtzen dela sasoi honetan eta hori gabe eta psikologikoki prest egon gabe, kitzikapena askoz zailagoa da: «Lehen 30 segundotan lortzen zena, orain agian 3 minututan lortzen da. Horregatik, sexualitatearen patroia aldatu behar da: estimulazio gehiago behar da, eta dena motelago doala onartu».

Hala ere, interes sexuala galtzeak ez du zertan esan gura sexualitatea desagertzen denik, baizik eta sexualitatea bizitzeko beste modu bat hasten dela. «Mendiaren adibidea jartzen dut nik: beti ez dugu tontorrera joan behar; joan gaitezke buelta bat ematera, loreak ikustera edo perretxikoak hartzera. Helburu finkorik gabe. Plazera beste leku batetik deskubritzeko aukera ematen du etapa honek. Erotikan dena ez da testosterona: intimitatea landu behar da, eta menopausia azaltzen denean, kitzikapenera iristea zailagoa denez, sedukzioa ezinbestekoa da; elkarri gauza politak esatea, elkar goraiatzea... Sedukzioa ondo ulertzea eta lantzea garrantzitsua da».

Etapa honetan sexu-harremanek mina eta ondoeza ere eragin dezaketenez, horrek ere menopausiaren inguruan dagoen ezjakintasuna eta tabua areagotu besterik egiten ez duela aipatu dute elkarriketatuek. Horren aurrean, Larrazabal fisioterapeutak bere pazientei orgasmoak edukitzea gomendatzen diela azaldu du: «Sexu-harremanek plazererako izan beharko lukete, ez mingarriak». Horregatik, sintomak normalizatzen baino, tratatzeko beharra azpimarratzen du. «Gozamena garrantzitsua bada ere, odol-zirkulazioa hobetzea da gakoa. Zenbat eta odol gehiago egon ehun batean, orduan eta hobe izango da haren kalitatea».

**MENOPAUSIA ETA LANA.** Orain arte, menopausiak maila fisikoan eta kognitiboan nola eragiten duen ikusi dugu, baina guzti horrek lan-arloan ere zeresan handia du. Lanean ari diren emakumeen % 11 ingururi eragiten die gai honek, eta gizartearen zaharkitzeagaz batera gero eta gehiago izango dira. Auzi hau bereziki agerikoa da gehien feminizatuta dauden sektoreetan, hala nola osasungintzan, zaintzetan edo hezkuntzan. Gainera, asko eta asko dira menopausiaren sintomengatik lana lehenago utzi behar izaten dutenak, horrek eragiten duen genero arrakalagaz.

Jone Bengoetxeak, ELA sindikatuko Genero berdintasun Politikarako arduradunak, menopausiak eta perimenopausiak lan-eremuan duten eragina aztertu du, gaiari begirada feminista, sindikala eta prebentziozkoa emanez. Berak menopausiaren patologizazioa kritikatu du, eta ohartarazi du mendealdeko eredu biomedikuak etapa hau «osatu beharreko gaixotasun hormonal» gisa hartzen duela. Aitzitik, ikuspegi mediku hutsetik haratago, «ikuspegi bio-psiko-sozio kultural batetik» aztertu beharko litzatekeela deritzo. Gainera, gizartearen jarrera sexista eta edadista ere salatu ditu, etapa horretan dauden emakumeen bizi-esperientziari aitortza ukatzen baitzaie.

Bestetik, Leticia Mancisidor Osakidetzako erizaina eta LAB sindikatuko ordezkaria da Uribeko ESian. Bere aburuz menopausiaz ez litzateke ikuspuntu kliniko edo ginekologiko batetik landu beharko soilik, eta lan-osasuneko gai gisa bezala ere aztertu beharko litzatekeela uste du. Azpimarratu du gai honen inguruan dagoen arazo nagusia da menopausia ikusezina dela enpresentzat, genero-ikuspegia txertatzen ari badira ere. «Emakumeen osasuna ez da osotasunean ikusten; gai mediko gisa hartzen da, ez lan-osasuneko prebentzioan txertatu beharreko zerbait bezala».

Bengoetxeak gogorarazi du Laneko Arriskuen Prebentziorako Legeak enpresak behar izan dituela langilean «egoera biologikoa aitortzera eta lanpostua egokitzera». Horren arabera, menopausiak dituen eragin fisikoak eta psikosozialak behar bezala kudeatu ezean, istripu-arriskua handitu eta antsietate arazoak kronifikatu daitezke. «Kontzentrazio falta eta lanbro mentala kontuan hartzekeo gaiak dira ere, produktibitatean eragiteaz gain, lan-istripuak izateko arriskua handitu dezaketelako», gaineratu du Mancisidorrek. Hala, ELA zein LABeko kideek adierazi dute menopausia duten emakumeen ongizatea bermatzeko aireztapen egokia, tenperaturaren kontrola, lan-kargen murriztea eta etenaldiak behar-beharrezko neurriak direla, besteak beste. Halaber, «taldearen sentsibili-



**«Menopausia etapa berri gisa ikusi behar dugu. Orain 'zaintzaren hormona' jaisten denez, besteak zaintzeari utzi eta geure burua zaintzeko garaia da»**

BEIA SEVER  
SEXOLOGOA



**«Tratamenduz gain, informazioa eta laguntza izatea funtsezkoa da; azken batean, normaltasunez bizi beharreko etapa bat da, oraindik horri buruz gutxi hitz egiten den arren»**

ELENA MENA  
EMAGINA



**«Ugalketa-aldetik kanpoko bizitzara igarotzeko pausoa da, eta gorputzean aldaketak hasten dira, eta ez dira beti gustukoak; horrek frustrazioa sortzen du»**

MIREN MELENDEZ  
GINEKOLOGOA



Irakurri menopausiari buruzko eduki gehiago QR kodigoa eskaneatuta.

zazioa eta protokolo argiak» ere aipatu ditu Bengoetxeak.

**ETAPA BERRIA.** Bizitzako fase honen aurrean, gorputzean zer gertatzen ari den ulertzea ezinbestekotzat jo dute adituek. Autozaintzak eta gorputzean ematen diren prozesuak ulertzeak sintomak arindu ditzake, beraz, dieta zaintzea, ariketa fisikoa egitea eta ez erretzea lagungarriak izan daitezke. Hala ere, horiek nahikoa ez direnean, badaude bestelako aukerak: osagarri naturalak edo, kasu batzuetan, hormona-terapia. Betiere, kasuz kasu aztertuta. «Ez da guztientzat, baina ez da duela urte batzuk uste zen bezain arriskutsua ere», argitu du Melendez ginekologoa.

Ildo horretan, gorputzak bizi dituen aldaketei dagokienez, Bilbao nutrizionistak adierazi du askotan entzuten diren aholkuek, hala nola gutxiago jatea eta gehiago mugitzea ez dutela zertan beti lagungarriak izan, batzuetan kaltegarriak ere izan daitezkeelako. Horren ordez, ikuspegia zabalagoa izan behar dela dio: «Klimaterioan ikuspegia multidiziplinarra izan behar da: elikadura, kirola, psikologia... dena lotuta dago». Elikadurak, gainera, loaren kalitatean eta umorean ere eragiten du; melatoninaren jaitzierak lo egiteko arazoak ekar ditzake, eta eguneroko ohituek asko baldintzatzen dute. Bilbaok suplementuakaz kontuz ibiltzeko ere gomendatu du, egun, hainbat aukera baitaude, baina guztiak ez baitira beharrezkoak. «Gure gorputzak gaitasuna du gauza asko berez sortzeko», dio; horregatik, «hobe da galdetzea, edo zer hartu aurretik».

Era berean, etapa honetara iristear dauden emakumeei, aholku argia eman die Mena: «Aldaketetara egokitu eta behar denean laguntza eskatu; izan ere, sintoma gehienak aldi baterakoak dira, eta denboragaz gorputzak bere oreka berria aurkitzen du».

Larrazabal fisioterapeutaren hitzetan, menopausiari behar bezala heltzeko norberaren burua eta gorputza ondo ezagutzea ezinbestekoa da, eta, horretarako, gorputza ukitu eta begiratu behar da, erreakzioak ulertzeko. Baina batez ere, beldurra alde batera uztea da gakoa: «Azken finean, gorputzaren beste aldaketa bat da, pubertaroa bezala. Etapa berri bat, baina ez du zertan negatiboa izan behar».

Bukatzeko, Hernandezek menopausiaren inguruko gogoeta positiboa ere proposatu du: «Aukera polita da gure zentzumenei kasu egiteko: zer entzun nahi dugun, zer jaten dugun, zer sentitzen dugun... Komunikatzen ikastea erronka handi bat da. Gauzak eskatzeko eta gure beharrak argiago adierazteko momentu oso ona izan daiteke». ◀

**Arrate Illaro eta Jon Amezaga** Bagara Nor

# «Herritarrok sentitzen dugun ezintasunetik abiatu gara»

ANDER ZARRAGA ▶

**G**etxon euskaraz normaltasunez bizitzeko dituzten oztopoakaz kezkatuta dauden herritarrak batzeko eta ekintza zehatzak antolatzeko helburuagaz sortutako herri-mugimendua da Bagara Nor. Arrate Illaro eta Jon Amezaga erakunde horretako kideek azpimarratu dutenez, momentuz, beraien xedea euskararen inguruko sareak sendotzea, ekintzak antolatzeta eta hizkuntzaren inguruko kezka gizarteratzea da.

**Zein izan zen Bagara Nor mugimenduaren abiapuntua?** Getxoko Udalak udaltzainen lan-eskaintza batean hamar lanpostutik erdiari bakarrik ezarri nahi zien hizkuntza eskakizuna, eta horrek piztu zuen lehenengo kezka. Horrek ekarriko zuen herritarren hizkuntza eskubideak beste urte askotan urratzen jarraitzea. Horren aurrean, hainbat herritar mobilizatzen hasi ginen, eta manifestazio bat ere egin genuen. Baina momentu hartan bertan konturatu ginen ez zela nahikoa erantzun puntual bat ematea: euskalgintza indartu eta beste pauso batzuk eman behar zirela.

**Zein testuingurutan kokatzen duzue ekimen hau?** Azken urteotan hainbat sententzia eta erabaki etorri dira euskararen aurka, eta hori oldarraldi moduan bizi dugu. Testuinguru horretan sortu zen Bagara Nor dinamika, herritar moduan sentitzen genuen ezintasunetik eta erantzun behar horretatik. Hasieran, bilera irekiak egin genituen, eta hortik sortu zen talde bat. Egun, 10 bat lagun biltzen gara modu erregularrean, baina badugu kontaktu sare zabalago bat. Parte-hartzea gaur egun likidoagoa da, jendea modu puntualean etortzen da, bakoitzak ahal duenaren heinean.

**Zein da zuen diagnostikoa gaur egungo egoerari buruz?** Ezin dugu pentsatu egoera onean gaudenik, lehendik ere euskaraz bizitzeko hainbat traba baikenituen, baina egoera okertzen ari dela ikusi dugu. Arazoa da egoera hori normalizatuta daukagula: euskara hizkuntza gutxitua izatea normalizat hartu dugu, eta hori ez litzateke normala izan



Arrate Illaro eta Jon Amezaga, Bagara Nor mugimenduko kideetako bi. HODEI TORRES

**Pribilegiatuak? Sektore batzuetatik sortu da diskurtso bat euskaldunak pribilegiatuak garela esanez. Baina kontrakoa da: hizkuntza gutxitu baten parte gara, eta euskaraz bizitzeko ahalegin handia egin behar dugu.**

behar; euskaldunok askotan asumituta daukagu erdarara pasa behar dugula.

**Beraz, euskararen aldeko kontzientzia piztea da zuen ardatz nagusietako bat, ezta?**

Bai, askok uste dute berdin bizi daitezkeela euskaraz zein gaztelaniaz, baina hori ez da egia. Aukera berdina ez ditugu. Euskaldunok bigarren mailako herritarrak bezalakoak gara askotan, eta hori problematizatu behar da. Gizarteak ulertu behar du hemen arazo bat dagoela.

**Pribilegioen diskurtsoaz ere hitz egin duzue...**

Bai, sektore batzuetatik sortu da diskurtso bat euskaldunak pribilegiatuak garela esanez. Baina kontrakoa da: hizkuntza gutxitu baten parte gara, eta euskaraz bizitzeko ahalegin handia egin behar dugu. Diskurtso hori faltsua da, eta desmuntatu egin behar da.

**Zeintzuk dira zuen lan-ildo nagusiak?** Bate-tik, euskaraz bizi duen egoeraren inguruko kontzientzia piztea. Bestetik, euskaltzaleak saretzea. Eta baita prestakuntza sustatzea ere, jendeak hizkuntzaren egoera zein den ulertu dezan. Garrantzitsua da ulertzea ez dela egia denok dakigula baina gutxi erabiltzen dugu esatea: askok ezagutza mugatua dute edo gaztelaniaz erosoago moldatzen dira, eta horregatik erabiltzen dute gehiago. ◀



Irakurri ezazu  
elkarrizketa osoa  
[www.hiruka.eus](http://www.hiruka.eus)  
webgunean edo goiko  
QR kodigoa  
eskaneatuta.

Getxo Alkatetza

# Amaia Agirre ez da berriro alkategai izateko aurkeztuko

**Getxoko alkateak gutun bidez jakinarazi die alderdikideei 2027ko udal-hauteskundeetara ez dela aurkeztuko. Erabaki «pertsonala» dela adierazi du.**



**«Legegintzaldi hau amaitzean, udaletxearen buruan ere etapa bat ixten dela sentitzen dut. Hausnartutako erabakia da; pertsona, begirada eta bultzada berriei bidea irekitzeko unea dela sinetsita hartu dudana»**

**A**maia Agirre Getxoko alkateak iragarri du ez duela alkatetzarako hautagaitza errepikatuko datorren legegintzaldian. EAJk ohar bidez jakinarazi duenez, Agirrek gutun bat bidali die alderdikideei bere erabakiaren berri emateko. Azaldu duenez, erabakia ez da erraza izan, baina «sakon hausnartu» ondoren hartu du, legegintzaldia amaitzean bere etapa ere itxi egiten dela sentitzen baitu.

Gutunean, Agirrek azpimarratu du Getxok «pertsona berriei, begirada berriei eta bultzada berriei» bidea irekitzeko unea duela, udalerrriak aurrera egiten jarrai dezan. «Erabaki meditatua da, konfiantzazko jendearekin partekatua, eta proiektua berrikuntzatik indartzen jarraitzeko konbentzimendurekin hartua», azaldu du eta argi utzi du bere konpromisoa mantentzen duela eta agintaldiko azken egunera arte lanean jarraituko duela.

Iñigo Ansolak, Bizkai Buru Batzarreko (BBB) presidentea, eskerrak eman dizkio Agirrerri egindako lanagatik eta 2019tik izandako bere agintaldietan erakutsitako «inplikazio eta konpromisoagatik». Era berean, jakinarazi du EAJk 2027ko udal-hauteskundeetarako Getxoko zerrendaburua aukeratzeko prozesua «laster» jarriko duela martxan. ◀

## ARTOLOZAGA ANAIAK Tailerrak

Mekanika · Karrozeria · Elektronika

**Bidaia hasi baino lehen gomendio batzuk...**

Bidaia baino lehen **komenigarria da tailerrera joatea, aurre-azterketa eta sistema guztien ordenagailu bidezko diagnostiko elektronikoa egiteko.**

- Ibilgailuaren likido-mailak konproba itzazu.
- Pneumatikoen marraskia eta errodaduraren banda behatu, zein puntutaraino higituta dauden jakiteko. Karga altuko kasuetan, presioa zaindu, ordezko gurpilean ere.
- Indargetzaileak eta argiak behatu.
- Haizetako-garbigailuek egoera ezin hobean egon behar dute.
- Matxura kasuan erabili beharko diren tresnak behatu. (triangelu-seinalea, txaleko islatzailea, katua, uhalak, erremintak, argiak eta fusibleak aldatzeko ordezkoak ...).



info@talleresartolozaga.com

946 763 814

Gatzarriñe Kalea, 42  
SOPELA



**Erandio** Dorre elektrikoa

## Arriskutsutzat jo dute Alzagako dorre elektrikoa zaharra

Auzotarrek Cables y Alambres lantegi zaharreko orubean dagoen 15 metro inguruko dorre elektrikoa higadura eta korrosio zantzu nabarmenak dituela salatu dute. Era berean, arriskua sor dezakeela diote, jolasgune, pasabide eta apartamentu baten alboan kokatuta baitago.

Erandio Bizirik plataformak Udalarari dorrea kentzeko eskatu dio, «beharrezkoa ez den arriskua» sortzen duela iritzita. Auzotarren arabera, egituraren kokapenak eta egoerak —makurdura eta tentsioaren presioa barne— areagotu egiten dute arriskua.

Bien bitartean, oraindik ez dago argi nori dagokion azpiegitura kentzeko ardura. Udalgobernuak aitortu du daborduko auzia zerbitzu teknikoaren esku dagoela. Une honetan aztertzen ari dira nori dagokion dorrea kentzea, kontuan hartuta lursailaren jabetza izan diren aldatetako eta azken urteotan horren erabileran egindako moldaketak.

Hori horrela, bizilagunek premia eskuhartzea eskatu dute, arriskua saihesteko eta inguruko segurtasuna bermatzeko. ◀

**Erandio** Airearen kutsadura

## Erandioko airearen kalitatea, aztergai Jaurlaritzan

Eusko Jaurlaritzak bilera egingo du apirilaren 22an Erandioko Udalean ordezkariak duten alderdiak, udalerriko airearen kalitateari buruzko azken txostena azaltzeko.

Bileran, txostenaren ondorio nagusiak ez ezik, erabilitako metodologia eta neurketa-protokoloak ere azalduko dira, udal-ordezkariek informazio zehatza jaso eta izan ditzaketen zalantzak argitzeko helburuagaz.

CSICeko ikertzaile bik egindako azterlanak partikula finen maila altuak atzeman ditu, eta Udalak Jaurlaritzari helarazi dio, bere konplexutasun tekniko delako eta behar bezala aztertu zein interpretatu dezan.

Ekimen hau osoko bilkuran aho batez onartutako mozio baten ondorio da (EAJ, EH Bildu eta PSEren babesagaz). Udala, bestalde, prest agertu da beharrezko neurriak bultzatzeko, alkatearen esanetan, «herritarren osasuna» lehentasun izanik. ◀

**Erandio** Ikurren auzia

# Espainiako bandera eta erregearen irudia jartzera behartuta

**Epaitegien erabaki batek berriro ireki du sinboloen inguruko eztabaida Erandion; izan ere, Udalarari Espainiako bandera eta Felipe VI.aren irudia jartzera behartu diote.**



**EH Bilduk Udalarari Espainiako bandera jartzera behartzea salatu du. ERANDIOKO EH BILDU**

Bilboko epaitegi batek Erandioko Udala Espainiako bandera udaletxearen kanpoaldean jartzera behartu du, «leku nabarmen eta ikusgarrian», gainerako ikur ofizialak batera. Horrez gain, epaiak agintzen du bandera hori osoko bilkuren aretoan ere kokatu behar dela, «ohorezko lekuan», eta baita Felipe VI erregearen irudia «leku pribilegiatu batean» jartzea ere.

Erabakia PP-k jarritako helegite baten ondorioz iritsi da. Izan ere, 2025eko otsailean, Erandioko Udalak uko egin zion Espainiako banderaren erabilera arautzen duen 39/1981 legea betetzera behartzen zuen mozio bati, eta horren ostean abiatu zen prozesu judiziala. Epaileak, azkenik, mozioaren ildo berretsi du, eta, gainera, 600 euroko kostuak ezarri dizkio Udalarari. Hala ere, EAJk gidatutako udal gobernuak oraindik helegitea aurkezteko aukera du, eta datozen asteetan argituko da zer gertatuko den.

Erabakiak berehala piztu du erreazio politikoa. EH Bilduk gogor kritikatu du neurria, eta «ahultasun demokratikoaren seinale» dela adierazi du. Koalizioaren ustez, sinbolo bat ezartzeko bide judizialera jotzeak herritarren borondatean oinarrituta ez dagoela erakusten du, Estatuaren inposizioan baizik.

Ildo horretan, EH Bilduk azpimarratu du udalak «euskal subiranotasunaren lehen mailako erakundeak» direla, eta zalantza jarri du indarrean dagoen araudia bera. Horren aurrean, Euskal Herriak nazio gisa bere etorkizuna askatasunez erabakitzeko duen eskubidea aldarrikatu du.

Testuinguru horretan, koalizioak herritarrak mobilizatzera deitu ditu, halako erabakien aurrean erantzuna emateko. Izan ere, ohararazi du epaien bidezko inposizioen aurrean «tutoretzarik onartzen ez duen herri» baten borondatea nagusituko dela. ◀

Leioa Animaliekiko tratu txarrak

# 3.100 sinaduratik gora aurkeztu dituzte asto-probak ordezkatzeko

Leioako Animaliekiko Tratu Txarrik EZ! taldeak 3.115 sinadura erregistratu ditu udaletxean, San Bartolome jaietako asto-probak beste jarduera bategaz ordezkatzeko.



Sinadura bilketa izako irailean abiatu zen. LEIOAKO ANIMALIEKIKO TRATU TXARRIK EZ!

**K**olektiboak sustatutako herri-ekimenaren bidez, jai-programetan animaliak erabiliz egiten diren harria arrastatzeko probak baztertzea eskatu dute. Horrez gain, Udalari eskatu diote halako ekitaldirik ez antolatzeko, ez diruz laguntzeko eta ez baimentzeko gune edo eraikin publikoetan. Sinadurak erregistratuta, proposamena Udalbatzan bozkatu beharko da.

Sinadura bilketa 2025eko irailean abiatu zuen kolektibo animalistak, eta, orduetik, herriko hainbat lekutan jarritako mahaien bidez bildu dituzte atxikimenduak.

**TXOSTENAK, MAHAI GAINEAN.** Guz-tira hiru txosten aurkeztu dituzte. Horietako batean, Teresa Gamonal albaitariak ohartarazi du 400 kilo inguruko asto batek 700 kiloko harria 20 minutuz arrastaka eramantean giharretako eta bihotz-hodietako estres handia pairatzen duela. Dokumentuak, gainera, beste erki-

dego batzuetan astoak jotzeko makilen erabilera debekatuta dagoela ere jasotzen du.

Bestalde, taldeak salatu du asto-probetara «oso jende gutxi» joaten dela, eta auzoko biztanleak bakarrik kontuan hartuta, parte-hartzea are txikiagoa dela.

## UDALAREN ESKU DAGO ERABAKIA.

Kolektiboak nabarmendu du ez dela eskaera berria, eta azken urteotan babes zabala jaso duela. Era berean, gogorarazi dute erabakia Udalaren esku dagoela.

Gainera, kolektiboaren arabera, Udalak ia 20.000 euro bideratzen ditu San Bartolomeko jaietara; beraz, gura izanez gero, animaliak erabiltzen dituzten probak ez egitea ezar lezake diru-laguntzen baldintza gisa. Hori da, hain zuzen ere, taldearen mezu nagusietako bat; hau da, jai-eredua ez dela berez sortzen, erakundeek erabakitzen dutela zer bultzatu, zer lagundu eta zer baimendu. ◀

Leioa Ausarta Eguna

## Elkartasunak leioaztarrak batuko ditu Ausarta Egunean

**L**eioako Udala eta Aspanovas elkarlanean ari dira Ausarta Egunaren hirugarren edizioa antolatzeko; hots, maiatzaren 10ean, domekan, egingo den jardunaldi solidarioak herritar guztiak batu gura ditu minbizia duten adingabeei eta haien familiei babesa emateko.

Eguneko ardatz nagusia Ausartak I. Martxa Solidarioa izango da: 11:00etan abiatuko den 3,5 kilometroko ibilbide irekia, adin eta egotira fisiko guztietara egokitua.

Horrez gain, egunak programazio zabala eskainiko du: tailerrak, parte hartzeko jarduerak eta informazio guneak egongo dira.

Izen-ematea daborduko zabalik dago, baina apirilaren 15a baino lehen eman behar da izena, eta bi aukera daude: ohiko izen-ematea edo «0 dortsala», 10 euroko kostua izanik.

Bildutako dirua Ausarta zentroa sortu eta mantentzera bideratuko dute, Aspanovasek sustatutako minbizia duten adingabeentzako osasun integraleko gunea. ◀

Leioa Auzotaxi

## Landa-auzoetako mugikortasuna erraztuko du Leioak

**L**eioako Udalak Auzotaxi zerbitzua abiarazi du, landa-eremuetan bizi diren herritarren mugikortasuna hobetzeko asmoz. Ekimena Santimami, Santsoena eta Peruri auzoetako bizilagunentzako da.

Zerbitzua 65 urtetik gorako pertsoneri, mugikortasun murriztua edo desgaitasuna dutenei, eta aldi baterako osasun-arazoengatik mugitzeko zailtasunak dituztenei zuzenduta dago. Xedea eguneroko joan-etorriak errazteko eta irisgarriago egitea da.

Programaren bidez, joan-etorriak Leioa barruan egin ahal izango dira, prezio murriztuan. Hala, bidaiaren kostua 15 euro edo gutxiagokoa denean, erabiltzaileak 2,5 euro ordainduko ditu, eta Udalak gainerakoa hartuko du bere gain, gehienez 12,5 euroraino. Herritar bakoitzak 100 bidaia izango ditu eta zerbitzua bonu pertsonalizatuaren bidez kudeatuko da, urte osoan zehar. Laguntza eskatzeko epea daborduko zabalik dago, eta 2026ko azaroaren 30era arte egongo da indarrean, edo aurrekontua agurtu arte. ◀

**Berango** Aurrekontu parte-hartzaileak

# Berangoztarrek aukeratutako proiektuak iragarri dituzte

**Berangoko Udalak Otxabenen haur parke berria eraikiko du, inguruko berdeguneak hobetuko ditu eta Moreaga parkean komun publiko bat instalatuko du.**

**A**ipatutako hiru jarduera horiek izan dira aurtengo aurrekontu parte-hartzaileen prozesuan boto gehien jaso dituzten proposamenak, eta, ondorioz, datozen hilabeteetan gauzaten hasiko direnak.

Hori horrela, Otxabenen haurrentzako parke berria egingo da, lorategi eta berdeguneak berreskuratuko dira, eta Moreagan komun publiko baten instalazioa gauzatu da. Udalak azaldu duenez, aukeratutako proiektuek herritarren «lehentasunak eta beharrak» islatzen dituzte.

Udalak azaldu duenez, herritarren parte-hartzea handia izan da aurten ere. Izan ere, 2025eko irailean 310 lagunek 763 proposamen aurkeztu zituzten guztira, eta bozketa joan den urtarrilean egin zen. Prozesu osoak 150.000 euroko aurrekontua izan du.

Adolfo Sangroniz Herritarren Partaidetzako zinegotziak berangoztarren inplikazioa nabarmendu du, eta eskerrak eman dizkie parte hartu duten guztiei. Haren esanetan, prozesu horri esker, udal-aurrekontuaren zati bat herritarrek egindako proposamenak gauzatzera bidera daiteke.



Prozesu osoak 150.000 euroko aurrekontua izan du. HODEI TORRES

**Itziar Aguinagalde alkatearen esanetan, «udalerrri hurbilagoa eta pertsona guztien beharretara egokituagoa» eraiki gura dute, herritarren ahotsa erabakietan txertatuz.**

Bestalde, Udalak jakinarazi du 10.000 euro bideratuko dituela udako kolonietan haurrek egindako saio parte-hartzaileetatik sortutako proiektuak garatzera. Horrela, gaztetxoek ere udalerrriaren etorkizunean ekarpenak egiteko aukera izango dute, haien ikuspegia eta beharrak kontuan hartuta.

Azken batean, aurrekontu parte-hartzaileen bidez, Berangok herritarren eta udalaren arteko lotura sendotzen jarraitzen du, erabakiak modu kolektiboagoan hartuz eta udalerriko egunerokoan eragin zuzena duten proiektuak lehenetsiz. ◀

**GetxoGas**

Urteko 365 egunetan gaude zabalik

- Garbiketa gunea
- Denda eta okindegia
- GnG tailerra
- Solaguren Jatetxea

☎ 944 301 500

📍 Getxo eta Berango artean

**GetxoGason Euskararekin bat!**

**bai**  
euskarari

**irati**

MODA GAZTEA ETA ARROPAK

94 491 12 71  
iratialgorta@gmail.com  
Torrene, 2 48991 – ALGORTA

Instagram and Facebook icons are also present.

**Gorliz** Tentsionatutako udalerria

# Gorliz, etxebizitza tentsio-eremu izendatzeko bidean

**Diagnostiko eta justifikazio-memoria osatu ondoren, udalerria bizitegi-merkatuko tentsio eremu izendatzeko prozedura abiatu du Gorlizko Udalak.**

**E**gindako azterketaren arabera, Gorlizek legeak ezarritako baldintzak betetzen ditu izendapen hori lortzeko. Datuen arabera, familiek diru-sarreraren %30 baino gehiago bideratzen dute etxebizitzara eta oinarrizko gastuetara, legeak gomendatutako mugaren gainetik. Gainera, azken urteotan etxebizitzaren prezioek inflazioa baino azkarrago egin dute gora, eta horrek are gehiago zaildu du herrian bizitzea.

Egoera hori etxebizitza parkearen egitura-gaz ere lotuta dago. Egun, etxebizitzaren erdia baino gutxiago dira ohiko bizilekuak; gainerakoak bigarren etxebizitzak, turistikoak edo hutsik daudenak dira.

Bestalde, Etxebideko datuek ere etxebizitza beharra berresten dute: 300etik gora eskara daude aktibo, gehienak alokairurako. Eskatzaileen artean, bai errenta baxukoek bai ertain-altukoek zailtasunak dituzte Gorlizan bizitzeko, gazteen emantzipazioari zuzenean eragiten diona.

Aurrera begira, aurreikuspenek ere ez dute egoera arintzeko zantzurik ematen. Bizikidetzaren unitateen kopurua handitu egingo dela aurreikusten da, baina unitate horiek txikiagoak



Gorliz bizitegi-merkatuko tentsio eremu izendatzeko bidea urratu du Udalak.

**iParticipo aplikazioaren bidez, gorliztarrek inkestetan eta kontsultetan parte hartu, eta proposamenen inguruan bozkatu ahal izango dute.**

izango dira eta populazioa zahartzen joango da. Horrek esan gura du etxebizitza eskariak bere horretan jarraituko duela, edo are handiago izango dela.

Testuinguru horretan, Udalak tentsio eremu izendapena funtsezko tresnatzat jo du etxebizitza politika eraginkorragoak martxan jartzeko. Hala eta guztiz ere, prozesua ez da itxiztat eman gura, eta horregatik herritarren parte-hartzea bultzatu gura izan du. Inkestak eta iParticipo aplikazioa jarri ditu martxan, gorliztarren iritzia jasotzeko eta planaren ziri-borroa guztion artean hobetzeko. ◀

RPS 65/17

**ARANTZA ETXEBARRIA**  
Hortz-Klinika

Odontologia orokorra  
Ortodontzia

Periodontzia  
PADI

Bidebarri 27, behe eskuina - ALGORTA 944 307 696

**Ugarte asesoria**

**ZERBITZU INTEGRALA**  
fiskala / laborala / kontabilitatea

Juan bautista Zabala kalea - 12.zk - 1.solairua - 7.dptu  
ALGORTA - BIZKAIA

TEL 94 652 39 93  
FAX 94 431 63 58  
MOB 658 73 26 48

info@asesoriaugarte.com

**Sopela** Sopelako 4ekin1

# Sopelako 4en auzia amaitu da, akordioa lortu ostean

**Bost urteko «amets gaiztoari» amaiera eman dio Sopelako 4ekin1 herri-mugimenduak, auzipetuek eta akusazioak adostutako itun bati esker, eta ez da epaiketarik egingo.**

**S**opelako 4ekin1 plataformak agerraldia egin du bost urte iraun duen prozesu judizialaren amaieraren berri emateko. Auzipetuek eta joko areto-ko jabeak akordioa erdietsi dute, eta horrek esan gura du ez dela epaiketarik egingo. Mugimenduaren esanetan, akordioa hautatzea izan da biderik «koherenteena», epaiketa egin ez gero lau herritarrak espetxeratuak izateko arrisku handia zegoelako.

Plataformako kideek apirilaren 12an egin zuten agerraldian gogoratu zuten 2021eko uztailan, Espainiako Polizia Nazionalak lau herritar beren etxeetan atxilotu zituela, «muntai polizial» baten testuinguruan. Salatu dutenez, lau herritarrak modu «fraudulentoan» auzipetu zituzten, euren militantzia politikoagatik jazartzeko asmoz; izan ere, herri-mugimenduko kideek behin baino gehiagotan salatu dute ez dela froga nahikorik egon pertsona horiek akusatzeko.

Urte hauetan zehar, egoerak okerrera egin duela adierazi dute, hasierako ziurgabetasuna mehatxu erreal bihurtu baitzen: guztira 32 urteko kartzela-zigorra eta isun ekonomiko itzela eskatzen zieten.

Prozesuan zehar auzia birritan artxibatu bazuten ere, fiskaltzak aurrera jarraitzea erabaki zuen. Horren aurrean, plataformak «elkartasuna ehuntzeko» deia zabaldu zuen duela hilabete batzuk, eta jasotako babesak «sekulako arrakasta» izan dela azpimarratu dute.

**ELKARTASUNA, BORROKARAKO TRESNA.** «Pozik egoteko eta ospatzeko arrazoi sobera ditugu», adierazi dute bozeramaileek. Taldearen arabera, «erantzun herritar zabal eta indartsuari» esker lortu dute egoera bidegabe honegaz amaitzea eta lau herritarrek Sopelan jarraitu ahal izatea.

Halaber, azpimarratu dute borrokak mezezi izan duela: «Borroka da egunerokotasu-



Herri-mugimenduko kideek bukatutzat eman dute «amets gaiztoa». SOPELAKO 4EKIN1

**«Erantzun herritar zabal eta indartsuari esker egoera bidegabe honekin amaitzea lortu dugu. Gure lau herrikideak gurekin herrian jarraituko dute eta batuta elkartasunez erantzuten dugunean edozer dugula posible ikustarazi dugu»**

nean bizi ditugun egoera bidegabe guztien aurrean herritarrok dugun tresnarik indartsuena. Borrokatu ezean, gaur oraindik ere 112.400 euroko isun eskari eta 32 urteko espetxe zigor eskari baten aurrean egongo ginateke».

Amaitzeko, eskerrak eman dizkiete alboan izan dituzten milaka pertsoneri, kartelak jarri dituztenei eta ekarpen ekonomikoak egin dituztenei. Hala ere, deitoratu dute oraindik Euskal Herriko hainbat mugimendu politiko eta eragile jazarpenaren biktima direla, eta iragarri dute jasotako laguntza ekonomikoaren zati bat antzeko egoerak bizi dituzten beste talde batzuei bideratuko dietela; zehazki, iragarri dute Berangoko Elkartasun Komiteari eta Aroztegiko kideei emango dietela ekarpen ekonomikoetatik lortutako kuxaren zati bat.

Horrenbestez, Sopelako 4ekin1 plataforma gisa euren ibilbidea gaur amaitzen dela adierazi badute ere, aurrerantzean ere «borrokan jarraitzeko arrazoirik ez dela faltako» ohartarazi dute. «Etorkizuna borrokan!», amaitu dute komunikatu bidez. ◀

Urduliz Orbizta Euskara Elkartea

# «Urdulizen euskaldunen sarea eratzea da gure helburua»

TESTUA: ANDER ZARRAGA ▶

**U**rdulizen euskararen erabilera sustatzeko, euskaltzaleak sartzeko eta hizkuntzaren inguruan jarduerak antolatzeko helburuagaz berpizten ari diren ekimena da Orbizta. Aurreko martxoaren 13an, elkartearen aurkezpen ekitaldia egin zuten Urdulizen, eta etorkizunera begira dituzten helburuez galdetu diegu ekimena bultzatzen ari diren kideei.

**Urdulizko euskara elkarte berpizten ari zarete. Zergatik erabaki duzue proiektu hau orain berreskuratzea?** Kontua da Urdulizen, 90eko hamarkadan Urdulizko Euskara Taldea zegoela. Proiektu horren atzean Iñaki Gilisasti, Josu Iratzagorria edo Karmen Arizmendi bezalako kideak egon ziren. Aurten, garai hartako kide batzuk eta herriko lagun talde bat bildu gara, eta taldea berriro martxan jartzea erabaki dugu, gaur egungo errealitatera egokituta.

**Martxoaren 13an aurkezpen ofiziala egin zenuen. Nolako izan zen?** Oso ekitaldi berezia izan zen, eta ezin hobeto atera zen, jendetza hurbildu baitzen Urdulizko kultur etxeko aretora. Horretan, iragana eta etorkizuna uztartu genituen: lehengo euskara taldeko kideak eta kanpotik etorritako «etorkin» euskaldunak elkarrekin egon ziren. Horrez gain, antzerkia, musika, bertsolariak eta bideoak ere egon ziren. Herriko jendeak eta abesbatzak ere parte hartu zuen. Horrez geroztik jaso genuen feedbacka oso positiboa izan zen.

**Izen berria ere aukeratu duzue: Orbizta. Zer esan gura du?** Bai, izen berria da. Urdulizen eta inguru honetan erabiltzen den hitza da 'orbizta', eta euskara suspertzea, berriro indar berritan jartzea esan nahi du.

**Nola ikusten duzue euskararen egoera herrian?** Urduliz asko hazi da azken urteotan, jende asko etorri da bizitzera. Datuen arabera, herritarren erdia baino gehiago euskalduna da, baina kalean euskarak ez du presentzia handirik. Hori ikusita, hausnartzen hasi ginen: euskaldunentzako elkarguneak sor-



Martxoaren 13an hainbat herritarrek parte hartu zuten aurkezpen-ekitaldian. ORBIZTA

**90. hamarkadan Urdulizen zegoen euskara taldea berreskuratu dute hainbat herritarrek, egun herriaren errealitatera egokitutako ekintzak antolatzeko, eta herrian euskararen erabilera sustatzeko. Daborduko hasi dira ekintzak antolatzen, hala nola Berbatxangoak edo irakurle taldea.**

tu behar dira. Euskaldunen sarea eratzea da gure helburu nagusia.

**Daborduko martxan zaudete eta hainbat ekintza antolatu dituzue, ezta?** Bai, badoaz gauzak mamitzen. Berbalagun taldeak martxan daude eta horrek asko lagundu digu komunitatea sartzeko. Horrez gain, irakurle taldea ere dugu. Berbatxangoak ere antolatzen ditugu eta Iñaki Gamindek eta Iñaki Gilisastik morfologia eta etxeko euskara lantzeko ikastaroak ere egiten ari gara.

**Gazteei begira ere zerbait antolatuko duzue?** Gure asmoa aisialdirako jarduerak antolatzeta da, ez bakarrik helduentzat, baita gazteei begira ere. Berriki Taupa Euskaltzaleen Mugimenduak antolatutako gogoeta saioetan parte hartu dugu, herriko euskararen egoerari buruzko diagnostikoa egiteko. Horrek asko lagunduko digu etorkizuneko proiektuak zehazteko.

**Bukatzeko, nola izan dezakegu zuen berri?** Badaukagu webgunea martxan eta gure ekimenen berri ematen joango gara horretan eta sare sozialetan. Garrantzitsua da jendeak gure aurpegiak ezagutzea eta sarean parte hartzea. Talde eragilea gogotsu dago eta pixkanaka proiektu berriak aurkeztuko ditugu. ◀

**Lemoiz** Udal-eraikinen erabilera

# Udal-eraikinen etorkizuna herritarrek erabakiko dute

**Lemoizko Udalak herriko sei udal-ekipamenduen erabilera eta beharrak definitzeko prozesu parte-hartzailea abiatu du, epe luzeko egitasmo batean.**

**L**emoizko Udalak udalerriko bizitza sozial eta kulturalerako funtsezkoak diren eraikinen etorkizuna aztertzeko eta erabakitze prozesua aurkeztu du. Ekimenaren helburu nagusia da ekipamendu horietan egin beharreko eraberritzeak eta inbertsioak modu isolatuan egin beharrean, herritarren benetako beharrei erantzunaren plan orokor baten baitan kokatzea da.

Prozesuak udalerriko auzoetako azpiegiturak hartuko ditu barne, bakoitzak bere berezitasun eta egoera propioagaz: Armintzan kultur etxea, jubilatuen lokala eta gaztegunea; Urizarren kultur gela eta udaletxe zaharra; eta Andrakan kultur gela. Gune horiek Lemoizko elkarte eta bizilagunentzat ezinbestekoak badira ere, Udalak aitortu du batzuek hobekuntza sakonak behar dituztela eta bes-



## Udal-eraikinak

Lemoizko Udalak abiatutako prozesu honegaz Armintzako kultur etxea, jubilatuen lokala eta gazteen lokala; Urizarko kultur gela eta udaletxe zaharra; eta Andrakan kultur gelak izan ditzaketen erabilera eta behar izanak erabaki gura dituzte herritarrek eta herriko eragileak.

te batzuek aukera berriak eskaintzen dituztela zerbitzu komunitario berriak hartzeko.

Udalak aurkeztu duen prozesuak lau hilabete inguruko iraupena izango du, eta denbora-tarte horretan, dinamika ugari antolatuko dituzte ekarpenak jasotzeko: elkarriketa pertsonalak, tailer taldeak, lan-saio teknikoak eta eztabaidarako gune irekiak. Prozesuan eragile guztiek izango dute aho-tsa: udal-talde politiko zein teknikoek, gaur egungo erabiltzaileek, tokiko elkarteek eta, oro har, Lemoizko herritarrek.

Udalak iragarri duenez, asmoa hausnar-keta kolektibo honi esker gune bakoitzaren potentziala ahalik eta gehien aprobetxatzea da, topagune gisa duten eginkizuna indartzeko eta unean uneko adabakiak jarri ordez, ikuspegi estrategiko bat definitzeko.

Behin dinamikak amaituta, itzultze-fase bat egingo dutela ere iragarri dute. Saio horretan, ondorioak eta herritarrek proposatutako lehentasunak aurkeztuko dituzte. Honen bidez, Udalak herritarren parte-hartzearekiko duen konpromisoa berretsi gura izan du, kudeaketa publikoa eta udalerriarren etorkizuna elkarlanean diseinatzeko tresna gisa. ◀

**Barrika** Birziklapenaren txapeldunak

# Herritar bakoitzeko ontzi gehien birziklatzen duten herrien artean

**B**izkaian 2.000 biztanletik beherako udalerrien artean, Barrika 12. postuan dago, ontziak ondoen bereizten dituztenen zerrendan. Udalak zehaztu duenez, aurretik dauden 10 udalerrri 1.000 biztanletik beherakoak dira, eta horietako askok 500 biztanletik behera dituzte; beraz, azpimarratu dute Barrikaren emaitzak bereziki esanguratsuak direla antzeko tamainako herrien artean.

Udalaren ustez, datuok agerian uzten dute biztanleria handiagoa den heinean, hondakinen bereizketarekiko konpromisoa txikiagoa izan ohi dela. Horregatik, Barrikak ontzien bilketan erakutsitako portaera «eredugarri»

# 34,80

kilogramo biltzen dira Barrikako biztanleko, gaikako zaborren bilketan, Bizkaiko onenetakoa.

hori beste frakzioetara ere hedatzea proposatu du: izan ere, Udalak azpimarratu duenez, Uribe Kostan ontziak ondoen bereizten dituen udalerrria izanik, "gainerako hondakinen bereizketan ere nabarmentzeko" erronka du.

Azkenik, Barrikako Udalak herritarrek zorriondu gura izan ditu lortutako emaitzengatik, eta nabarmendu du datuok urtetik urtera hobetzen ari direla. Halaber, gaikako bilketaren egokiaren garrantzia azpimarratu du, ingurumenari lotutako ondorioengatik ez ezik, herritarrentzat eta udalerriarrentzat duen kostuagatik ere, eta kontzientziario lanean sakontzen jarraitzeko deia egiten du. ◀

**Uribe Kosta** Landare inbaditzaileak

# EEIKO, landare inbaditzaileen aurkako tresna berria

**Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateak plataforma digitala jarri du martxan, herritarrek eskualdean detektatutako landare inbaditzaileen berri emateko.**

**P**lataformak EEIKO du izena eta helburua datu-base eguneratu bat sortzea eta espezie horien hedapena kontrolatzeko ingurumen-kudeaketa eraginkorragoa ahalbidetzea da.

Barrika, Berango, Gorniz, Lemoiz, Plentzia, Sopela eta Urdulizko bizilagunek parte har dezakete ekimenean. Basoinsa enpresak garatutako plataformaren bidez, erabiltzaileek aurkitutako landare inbaditzaileen kokapena erregistratu eta informazioa partekatu dezakete, horrela kartografia publiko eta eguneratu bat osatzen lagunduz.

Mankomunitatearen arabera, landare inbaditzaileak biodibertsiterako mehatxu nagusietako bat dira, eta herritarren ekarpenak «funtsezkoak» izango dira inbasio-fokuak garai antzemateko eta kontrol-neurriak hobeto planifikatzeko.

Parte hartzea erraza da: EEIKO webgunean izena eman, eta ondoren aurkitutako landa-



UK-ko landare inbaditzaileak kontrolatzeko web-plataforma berria jarri dute martxan.

**Parte-hartzea erraza da: EEIKO webgunean izena eman eta landareen kokapena eta datuak igotzea besterik ez da egin behar.**

reen kokapena eta datuak igotzea besterik ez da egin behar. Mankomunitateak herritarrek animatu ditu ekimenean parte hartzera, «ekarpen bakoitzak gure ekosistemak hobeto babesteko aukera ematen duelako».

Azken batean, EEIKO tresnak ingurumenaren zaintza partekatua sustatu gura du, herritarrek protagonista bihurtuz eta tokiko biodibertsitatea babesteko urrats eraginkorrek emanez. ◀

**Uribe Kosta** Metroaren maiztasuna

# EH Bilduk metroaren maiztasuna Uribe Kostan handitzeko eskatu du

**E**H Bilduk Uribe Kostan metroaren maiztasuna lehenbailehen handitzeko eskatu du, eskualdeak sare osoko zerbitzurik baxuenak jasaten jarraitzen duela salatuta. Koalizioaren arabera, arazoa ez da berria, eta oraindik ez da konponbide eraginkorrik hartu.

Azaldu dutenez, aurkeztutako hobekuntza-proposamenak atzera bota dira, eta egingandako azterlanen emaitzak ez dira argitaratu. Era berean, tren eta teknologia berrien etorrera atzeratzeak egungo egoera luzatuko

**Mobilizazioak Alderdiak herritarrek mobilizatzea deitu ditu, zerbitzuaren hobekuntza aldarrikatzeko, horren barruan maiztasunaren 7an Sopelan egingo den elkarretaratzean parte hartzera animatuz.**


duela ohartarazi dute.

Egoera horren aurrean, berehala aplikatzeko neurriak proposatu dituzte, hala nola Urdulizera iristen diren zerbitzuak zabaltzea eta goizeko tren batzuk Urdulizen hastea. Halaber, epe ertainera azpiegitura-hobekuntzak eskatu dituzte.

EH Bilduk azaldu duenaren arabera, arazoaren muina «borondate politikoa» dago, eta herritarrek mobilizatzea deitu dituzte, maiztasunaren 7an Sopelan egingo den elkarretaratzea barne. ◀

# Euskara gara!

TESTUA: ANDER ZARRAGA • ARGAZKIAK: HIRUKA ETA KORRIKA



Martxoaren 26an, goizean goizetik sartu zen lekukoa Uribe Kostan, Lemoizetik Gorliz eta Plentziara, Barrikatik pasatu eta Urduliz, Sopela eta Berango, Getzoko auzoetan gora eta behera, Leioan ere hara eta hona ibili ostean, Erandion itsasadarra zeharkatu zuen lekukoak. Bidean, dozenaka herritarrek pasatu zuten testigua esku batetik bestera, beste ehunka eta ehunka uribekostarren babespean, irudi gogoangarri hauek utziz.







# Apirila-maiatza

## Barrika

Apirilak 24, barikua

**Ludoteka: txorien janlekua**

18:00 | Ander Deuna aretoan

Izen-ematea telefonoz edo emailaz: 946 775 163  
eta liburutegia@barrika.eus.

Apirilak 25, zapatua

**Musika: txeloa eta biolina**

19:00 | Ander Deuna aretoan

Apirilak 28 eta 29

**Ikastaroa: garraio publikoa mugikorrean**

18:00 | Ander Deuna aretoan

## Berango

Apirilak 19, domeka

**Txotxongiloak: Nahia eta Neo**

18:00 | Berango Antzokian

Apirilak 25, domeka

**Antzerkia: Escape room**

19:00 | Berango Antzokian

Lau lagun escape room batean sartu dira, eta irteeta ez da erraza izango.

## Erandio

Apirilak 19, domeka

**Antzerkia: Kandida**

19:00 | Merkatu Zaharrean

Clararen bitzita ez da ematen duena.

Apirilaren 22tik 29ra

**Ihes-gela: Dragoiak eta euskal mitologia**

Gaztetxokoan

14 eta 29 urte arteko gazteentzako erronka.

Apirilak 23, eguena

**Liburu azoka**

Altzagako metro-geltokian eta Josu Muruetan

Azoka Nishma Sahara Elkarrean antolatuta.

Apirilak 24, barikua

**Berbaldia: Subflubialaren eragina eskualdean**

18:30 | Josu Murueta kultur etxean

## Getxo

Apirilak 19, domeka

**Bertso-ekitaldi berezia**

18:00 | Muxikebarrin

Amets Arzallus, Andoni Egaña, Maialen Lujanbio eta Unai Mendiburu bertsolariak eta Unai Elorriaga idazlea oholtza gainean elkartuko dira.

Apirilak 24, barikua

**Antzerkia: Zanbuila**

20:00 | Muxikebarrin

Gaur egungo zein beste belaunaldi batzuetako emakumeen bizitzetara salto egite bat.

Apirilaren 24tik 26ra

**Getxoko Liburu Azoka 2026**

Areetako Xake plazan

Tokiko liburu-dendek eta udal liburutegiek herritarrekaz bat egingo dute. Egun bakoitzean publiko guztientzako jarduera-programazioa eskainiko dute, hainbat sorpresa barne.

Maiatzak 2, zapatua

**Dantza: Suak su**

19:30 | Areetako xake plazan

Getxo Eszena Kalean jaialdiko emanaldia.

## Gorliz

Apirilak 19, domeka

**Txikibox**

11:00 | Ibarreta parkean edo frontoian

Boxeo-eskola eguna.

**Euskararen basoa**

19:30 | Goienetxe parkean

Gorlizko familien artean euskararen erabilera sustatzeko ekimena.

Apirilak 25, zapatua

**Dantzaren Nazioarteko Eguna**

11:00 | Ibarreta plazan eta Astondon

Hainbat dantza-emanaldi eskainiko dituzte iluntzera arte.

## Leioa

Apirilak 17 eta 18

**Txakomic 2026**

Mendibile Jauregian

Marrazketa zuzenean, showcooking, dastaketak, musika... Ez galdu!

Apirilak 18 eta 19

**Umeentzako zinema: Tafi eta lagunak**

17:30 | Muxikebarrin

Apirilak 25, zapatua

**Antzerkia: Madness**

20:30 | Kultur Leioan

Sistemaren bazterretako bizitzari buruzko komedia musikala.

## Lemoiz

Apirilak 23, eguena

**Berbaldia: Komunitate energetikoak**

18:30 | Armintzako kultur etxean

Apirilak 24, barikua

**Berbaldia: geologia**

18:30 | Armintzako kultur etxean

Armintza duela 100 milioi urte.

Apirilak 26, domeka

**Zinema**

18:00 | Andrakako kultur gelan

## Plentzia

Apirilak 24, barikua

**Umeentzako antzerkia: Tximeletak**

18:00 | Goñi Portalen

Apirilak 25, zapatua

**Antzerkia: Bi baso bat ur**

Jai Alai frontoian

Tratu txarren osteko alaitasunaz.

Apirilak 29, eguaztena

**Tailerra: Elikagaien etiketek ezkututzen dutena**

17:30 | Topalekuan

## Sopela

Apirilak 19, domeka

**Dantza: Tá**

18:00 | Kurtzio kultur etxean

Lehen haurtzarorako dantza ikuskizuna.

Apirilak 25, zapatua

**Esaera Zaharren 31. Txapelketa**

11:00 | Udaletxean

Goizetik, egun osoko egitaraua prestatu dute, tartean, herri-bazkaria eta Eingo taldearen kalejira.

Apirilak 26, domeka

**Dantza: Amama**

18:00 | Kurzio kultur etxean

Umeentzako dantza-ikuskizuna

## Urduliz

Apirilak 20, 21, 27 eta 29

**Guraso eskolak**

17:30 | Urdulizko kultur etxean

Osasuna eta ongizate digitala ehuntzen.

Apirilak 23, eguena

**Liburuaren Nazioarteko Eguna**

17:30 | Udaletzeko kultur etxean

Ipuin kontaketak eta tailerrak egingo dituzte.

Apirilak 26, domeka

**Txiri-txiri ibilbideak**

10:00 | Urdulizko kultur etxean

Jasangarritasuna eta kultura ondarea.

## Lehen/Orain **Gorlizko hondartza 1950-1970 artean**



ITURRIA: GERMAN ELORZA ARRIETA

## Uribitakora



**ALBE**

**Algortako  
Bertsolari  
Eskola**

**TESTUA**  
Peru de Pedro  
Larrea

**DOINUA**  
*Txepetxarena*

**ARGAZKIA**  
Hodei Torres

## Babesa

*Nire zulo txikian hasi  
eta amaitzen dot eguna.  
Nahiz ta eguzki zalea nazen  
etxea hotz ta iluna;  
baina halere gustora hartzen dot  
nire txokotxo kuttuna!  
Bertan etzunda begiak itxi,  
itxaron biharamuna...  
Ez ahal dogu ba guztiok behar  
etxeo segurtasuna?*

*Urten, ez urten erabakitzen...  
A ze barneko gudua!  
Baina gosea ezin eutsita  
finkatu dot helburua:  
kanpora urten behar dot utziz  
nire babes segurua.  
Zirrikitutik lehenik nahi dot  
zelatatu ingurua,  
begiradaxo bat emateko  
atarako dot burua.*

*Alderik alde nabil begira  
ia kanpoan ze giro,  
harraparirik ez dot ikusi,  
hala ere ez naz fido!  
Arnasa hartu eta urten nazi  
gero horman gora igo.  
Eguzkiaren berotasunak  
epelduko nau astiro,  
baina sabela betetakoan  
zulora noa barriro!*

# Artaza-Romo institutua: «Momentuz ez dakigu ezer»

**Itsasadarraren azpiko tunelaren obrek Artaza-Romo institutuaren etorkizuna kolokan jarri dute. Horren eraginez 400 ikasle lekualdatzea aztertzen ari dira. Institutuko irakasle-talde batek hitz egin dugu.**

**E**z da gaur goizeko kontua. Denbora daramate Artaza-Romoko institutuko irakasleek eta familiek galdera bera airean: zer gertatuko da itsasadarraren azpiko tunelaren obrak? Azpiegitura handia da, Leioako eta inguruko mugikortasuna eraldatzeko pentsatua, baina bidean, bestelako ondorioak ere ekarriko ditu, tartean, hezkuntza-komunitatean sortutako kezka.

«Denbora guztian esaten ziguten normaltasunez egongo ginela», gogoratu du Artaza-Romo institutuko irakasle-talde batek. Baina azken asteetan egoerak beste norabide bat hartu du: «Orain esan digute ikastetxea egokitzeko obrak ez direla irailerako prest egongo, eta lekualdatzea aztertzen ari direla».

Lanen eraginek zuzenean eragiten diete zentro horretako ehunka ikasle eta familiari; hain zuzen ere, Artaza-Romoko 400 ikasleren etorkizuna dago jokoan, nahiz eta Bizkaiko Foru Aldundiak argitu duen erabakia ez dagokiola hari, Hezkuntza Sailari eta hezkuntza komunitateari baizik.

**Subflubiala Ez! plataformak apirilaren 25erako manifestazioa deitu du, institutuan aurreikusitako proiektua gelditzeko xedeagaz. Deialdia Areetako Xake plazan izango da, arrastiko 19:00etan.**

**«Familia batzuk oso kezkatuta daude, eta aukera badago, nahiago dute umeak hemendik atera eta ikastetxex aldatu»**

**ARTATZA-ROMO INSTITUTUKO IRAKASLE-TALDE BAT**



Mahai gainean dauden

Aldundiak, gainera, defendatu du proiektuak badituela zarata, bibrazioak eta airearen kalitatea kontrolatzeko neurriak, eta ez dela aldaketa teknikorik egin azken hilabeteetan. Hala ere, azalpen horiek ez dute lasaitasunik ekarri eskolara. Alderantziz. «Informazioa oso bat-batekoa izan da, eta momentuz ez dakigu ezer: ez nora joango ginatekeen, ez ze baliabide izango genituzkeen ere», diote gaiari buruz el-karrizketatutako irakasleek.

**AIREAN DAGOEN ERABAKIA.** Lekualdatzea aipatu bada ere, ez dago ezer itxita. Horrek are gehiago zailtzen du egunerokoa. «Ez dakigu ziur hemendik joan beharko garen ala ez, ezta joanez gero, institutuko zein parte mugituko litzatekeen ere», deitoratu dute. Gainera, espazio faltak berak baldintzatzen du aukera hori: «Guztiok ez gara sartzen leku berrian». Antza denez, Lamiako Eskola edo Romoko Eskola izango lirateke 400 ikasle horien ikastetxe berriak datorren ikasturterako, eta azpiegituren lanek iraungo duten zazpi urteetan zehar. Horrek guztiak eskolaren antolaketan izango lukeen eragina ez da makala. Ikastetxea zatituta geratzeko arriskua dago, eta irakasleek hainbat

**Bazatoz?**

**IKASTOLAK**

**betikoikastola.eus**  
Artatza auzoa, 84  
LEIOA

**BETIKO IKASTOLA**



aukerak zuzenean ukitzen dituzte ehunka ikasle eta familia.

lekutan ibili beharko lukete atzera eta aurrera. «Irakasleak hiru gun e ezberdinetan egon beharko ginateke, eta horrek konplikazio handiak sortzen ditu», diote.


**KEZKA, GERO ETA HANDIAGOA.** Ziurgabetasuna ez da paper gaineko kontua soilik; hau da, klaustroan nabari dela diote. Gaia lantzen ari den irakasle-taldearen esanetan, «ezinegona badago, bai subflubialaren eraginagatik, bai lekualdatzeak ekar ditzakeen ondorioengatik». Familien artean ere antzeko ezinegona zabaltzen ari da. Batzuek daborduko pausoak emateko prest daudela ere adierazi dute: «Familia batzuk oso kezkatuta daude, eta aukera badago, nahiago dute umeak hemendik atera eta ikastetxez aldatu».

Testuinguru horretan, Elkarrekin Bizkaiak kontraesan bat jarri du mahai gainean: «Obrak egunerokoarekin bateragarriak badira, zergatik planteatzen da ikasleen lekualdatzea?».

**ERANTZUNEN ZAIN, MUGIMENDUAN.** Hala ere, egoerak ez ditu geldirik utzi. Ikastetxean bertan, langile talde bat antolatzen hasi da daborduko, egoerari erantzun kolektibo bat emateko asmoagaz. «Subflubialaren kontra gaude, eta ikastetxean izango duen eragina salatzen ari gara», azpimarratu dute. Gainera, zalantzan jarri dute egoera kurtsu bakarrera mugatuko denik.

Harrezkero, mobilizazioak, bilerak eta barne-antolaketa etorri dira, egoerari buelta emateko saiakeran. Haatik, aldarrikapen nagusia informazioa eta gardentasuna dira. «Ez dakigu ezer ziur. Espero dugu uda baino lehen egoera argitzea», diote. Horregatik, ahal den neurrian, eguneroko jarduna normaltasunez mantentzen saiatzen ari dira. Ikasturtea amaitzear dago, eta erantzunak oraindik iritsi gabe daude: «Momentuz, ez dakigu ezer». ◀

prentsa  
euskaraz,  
pentsa  
euskaraz!



Ariane Ellacuria Psikologoa

# «Sare sozialak ispilua dira, baina arazoa barnean dago»

**Psikologia kognitibo-konduktualean espezializatutako psikologo sanitarioa da Ariane Ellacuria Leioaztarra. Bere lanean, helduez gain, umeak ere artatzen ditu, gaitasun intelektual handiak dituztenak tarteko. Bere lanean umeak bezala, gurasoak ere heztea ezinbestekoa dela dio.**

ANDER ZARRAGA

## Teknologia berriek eta sare sozialek umeengan duten eraginaren inguruan kezka handia piztu da. Nola aztertu duzu zuk gai hau?

Teknologiaren inguruan, zehazki, autoestimua gaia agertzen da askotan, eta ni ere horretan aritzen naiz: konparazioak, besteak bezalakoa izateko beharra... Horrelako arazok izugarritzko eragina dute gazteen osasun emozional eta mentalean, eta egon daitezkeen arazoak saihesteko autoestimu independentea lantzen ahalegintzen naiz beraiekin; izan ere, pertsona gehienek autoestimu menpekota dute, hau da, norbera baloratzen da besteen iritzien arabera. Aldiz, gu oinak lurrean jartzen saiatzen gara; azken finean, autoestimuak arlo guztietan eragiten duelako, eta sare sozialak horren ispilu bat besterik ez dira. Arazoa barnean dago, eta etxetik ere landu behar da: gurasoek eta irakasleek irakatsi behar dute balioa prozesuan dagoela, eta ez emaitzan bakarrik.

**Gurasoen eta irakasleen papera berezikoa da beraz; beraiengandik hasi beharko litza-teke lanketa?** Bai, noski; helduak eredu gara.

«Psikologia kognitibo-konduktuala zientzia arloan emaitza hoberenak erakutsi dituen arloa da. Lan egiten da emozioekin, pentsamenduekin eta jokabideekin. Garrantzi handia ematen zaio nola kudeatu hori egunerokoan; pautak eta ariketak ematen ditugu»

Umeak ikusten badu gurasoa urduri jartzen dela laneko elkarrizketa baten aurrean edo itxuragatik kezkatzen dela, umeak ikasiko du bere balioa besteen iritzien arabera dela. Horrelako kasuetan beti pentsatu behar dugu umeak esponjak bezalakoak direla: dena xurgatzen dute. Horrenbestez, kasu askotan, gurasoekin lan egitea ezinbestekoa da umearen prozesuak aurrera egin dezan.

**Mugikorrek eta gizartean gero eta larriagoa den berehalakotasun horrek ere eragina dute gazteengan, ezta?** Noski. Mundua norberaren garapena baino azkarrago doa eta horrek ere eragin handia du. Estimulu asko ditugu eta dena unean bertan nahi dugu. Horregatik, frustrazioa kudeatzea oso zaila da, bai umeentzat eta baita helduentzat ere.

**Gaitasun intelektual handiko gazteakaz ere bazabiltza. Zein arazo mota agertzen dira horrelako kasuetan?** Arlo akademikoan estresa, frustrazioa, asperdura edo interes falta ager daitezke. Dena azkar eta ondo egin nahi dute, eta horrek ondoeza sortzen die.

**ERDI GUNEAN ZU**

Eskatu bisita pertsonalizatua

**SAN NIKOLAS**  
IKASTOLA

Ezagutu gure eraikin berria  
*Etrakigunerantz!*

**Eta helduen kasuan, zeintzuk dira ikusten dituzun arazo nagusienak?** Bizitzako ohiko arazoak dira gehienbat: bikote harremanak, lagunak, lana... Askok datoz beren burua ulertzen ez dutelako; hau da, antsietatea eta ezinegona sentitzen dute, baina ez dakite zergatik den hori. Askok, denbora luzea daramate sentsazio fisiko txarrekin eta inolako konpibiderik bilatu gabe, «hau pasatu egingo da» pentsatzen dute, baina iristen direnerako antsietate edo depresio maila altua dute.

**Lehen, psikologora joatea tabu samarra zen; aldatu egin da hori?** Niretzat premiazkoa da. Arazo fisikoekin medikuarengana joaten garen bezala, emozionalki gaizki gaudenean ere psikologoarengana joan beharko ginateke. Gazteak gaur egun kontzientziatuago daude eta ez dago hainbeste tabu. Helduen kasuan, oraindik kostatzen da batzuetan; lehenago bidaltzen dute semea edo alaba beraiek etorri baino lehen.

**Psikologia kognitibo-konduktualean espezializatuta zaude. Zer esan nahi du horrek?** Zientzia arloan emaitza onenak erakutsi dituen arloa da, emozioekin, pentsamenduekin eta jokabideekin lan egiten dugulako. Autozagutza garrantzitsua da, baina baita egunerokotasunerako tresna praktikoak ematea ere. Jendea ez dio balio hitz egitea bakarrik; jakin nahi dute zer egin frustratzen direnean edo antsietatea dutenean, eta horretarako pautak eta ariketak ere ematen ditugu.

**Eman dezakezu ariketa baten adibide bat?** Adibidez, esposizio teknikak daude. Pijama jantzita kalera ateratzea izan daiteke ba, kar-kar. Jende askok ezin du hori egin beldurratik. Ariketa horien bidez, norberaren burua onartzen ikasten da, ispilua ariketaren bidez bezala: maite dut nire burua, nahiz eta ikusten dudana guztiz gustukoa ez izan.



Ellacuriak psikohizkuntzaren arloan ere lan egin du. HODEI TORRES

### ISPILUAREN ARIKETA

«MAITE DUT NIRE BURUA, NAHIZ ETA IKUSTEN DUDANA GUZTIZ GUSTUKOA EZ IZAN»

**Amaitzeko, Ellacuria Psikologia proiektuarekin hasi berri zara. Nolako ari da izaten hastapena?** Erabakia hartzea zaila izan da, baina ausarta naiz. Ilusioz egiten bada, zailtasunak gainditu egiten dira. Eskaria badago, eta pazienteak (edo bezeroak) gustura daudenean, zurekin jarraitu nahi dute leku batetik bestera joanda ere.

94 676 02 66 | [info@anderdeuna.eus](mailto:info@anderdeuna.eus)

HH1eko matrikulazioa

URTE OSOAN ZABALIK

IKASTOLAK



INTERESA IZANEZ GERO,  
BETE HURRENGO GALDETEGIA  
ETA HARREMANETAN JARRIKO  
GARA ZUEKIN.

BAZATOZ?

**ander deuna**  
IKASTOLA

anderdeuna.eus

# Lanbide Heziketako proiektua burutu dute Sierra Leonan

**Politeknika Txorierrrik energia berriztagarrien sektorean profesional berriak garatzeko zein enpresen arteko lankidetzasarea indartzeko proiektu batean parte hartu du Sierra Leonan.**

**P**oliteknika Txorierrrik EREVETS – Empowering the Renewable Energy Sector through VET Support in Sierra Leone proiektu europarra abiarazteko misioan parte hartu du. Nazioarteko lankidetzako Erasmus+ barruan kokatzen den proiektu horren helburua Afrikako herrialdean energia berriztagarrien arloan Lanbide Heziketa indartzea da.

Proiektua Maastricht Universityk (Herbehereak) koordinatzen du, eta Politeknika Txorierrrik lanbide-heziketa teknikoan, hezkuntza-berrikuntzan eta Europako proiektuen kudeaketan duen esperientzia eskaintzen du. Sierra Leonako hainbat hezkuntza-erakundek ere parte hartzen dute partzuergoan, horien artean Freetown Polytechnic, Eastern Technical University of Sierra Leone eta University of Sierra Leone – Fourah Bay College.

Otsailean egindako lan-asteen hainbat bilera eta jarduera egin zituzten partzuergoaren helburuak lerrokatzeko eta herrialdeko energia-ekosistemako funtsezko eragileekin lankidetzan hasteko. Proiektua abiarazteko ekitaldi publikoa Freetown Polytechnic-en egin zuten, eta hezkuntza-erakundeetako, agintari publi-



Txorierrri Politeknikako kideak Sierra Leonako irakasle, ikerlari eta politikariakaz.

**«Sierra Leonak potentzial izugarria du energia berriztagarrietan. Lanbide Heziketatik sektore horretan lan egiteko behar diren gaitasunak gazte gehiagok eskura ditzaten laguntzea ilusio handia da»**

**ASIER ZABALA**  
POLITEKNIKA TXORIERRIKO  
MEKANIZAZIO-IRAKASLEA

koetako, energia-sektoreko enpresetako eta nazioarteko erakundeetako ordezkariak bildu ziren, sektorearen beharrak identifikatzeko eta lankidetzas-akuerak aztertzeko.

Misioak Keneman jarraitu zuten: bazkideek Eastern Technical University of Sierra Leone bisitatu zuten eta zuzendaritza-taldearekin eta irakasleekin bildu ziren. Sare elektriko txikiak garatzen zituen tokiko enpresa bat ere bisitatu zuten, eta, horri esker, bertatik bertara aztertu ahal izan zuten energia berriztagarriaren arloko prestakuntza profesionalak dituen beharrak.

Lidia Gonzalez Europako proiektuen kudeatzaileak ekimen horien balioa azpimarratu du: «EREVETS bezalako proiektuek hainbat herrialdeetako erakundeen artean zubiak erakitzea eta hezkuntza, enpresak eta tokiko garapena lotzea ahalbidetzen dute».



**POLITEKNIKA  
TXORIERRI**

**HEGAN**  
EGITEKO AUKERAK

Lanbide Heziketa eta Batxilergoa



**Zure  
superboterea  
garatu**

**Eman izena  
POLITEKNIKATXORIERRI.EUS**



# Zure etorkizuna eraikitzen

anbide Heziketak inoiz baino garrantzi handiagoa hartu duen honetan, **Fadura LHII** ikastetxe publikoa erreferente sendoa bihurtu da Uribe Kostan. Prestakuntza praktikoa, berrikuntza teknologikoa eta balioetan oinarritutako hezkuntza uztartuz, etorkizun profesionalerako bide erreal zein eraginkorra eskaintzen die ikasleei, enpresen beharrei erantzuten dien bitartean.


**ESKAITZA ETA ESPEZIALIZAZIOA.** Ikastetxeak eskaintza zabala du hainbat arlotan: Osasungintza, Automozioa, Gizarte eta Kultura Zerbitzuak, Jarduera Fisikoak eta Kirolak, Elektronika eta Fabrikazio Mekanikoa. Familia horietako erdi eta goi mailako zikloen bidez, ikasleek lan merkatuak eskatzen dituen profil teknikoetara egokitzeko aukera dute, betiere ikuspegi praktikoa eta eguneratua oinarrituta. Hori horrela, bereziki azpimarratzekoa da *Mekanizazio, konformazio eta muntaia prozesuen programazioa eta diseinua* ziurtagiri profesionala, eskaintzan nobedadeetako bat dena eta gero eta espezializazio handiagoa eskatzen duen sektore industrialari erantzuteko funtsezkoa.

Espezializazioa eta aukera berriak etengabe lantzen ditu **Fadura LHIIk**. Prestakuntza honek aukera berriak irekitzen dizkie ikasleei, profil tekniko zehatz zein kualifikatuaren eskariari erantzunez.

**LANERAKO BIDEA.** Metodologia aktiboen eta teknologia digitalen bidez —adimen artifiziala barne—, ikasleek ezagutza teorikoa praktikan eramatean dute lehen unetik. Tailer eta laborategiak ekipamendu modernoagaz hornituta daude, etorkizuneko lan-inguruneetako tresna eta prozesuak gertutik ezagutzeko.

Lan munduagaz lotura estua ere badu **Fadura LHIIk**. Ikasleek praktikak egiten dituzte zikloetako bi mailetan, ikasitakoa benetako testuinguruetan praktikan jartzeko. Gainera, dual intentsiboko modalitateak aukera ematen du ikasten jarraitzen duten bitartean enpresa batean kontratatuta lan egiteko. Esperientzia honek laneratzea errazteaz gain, ikasleen profil profesionala ere indartzen du, prestakuntza eta esperientzia uztartuz.

**ETORKIZUNeko AUKERAK.** Erasmus+ programaren bidez, ikasleek Europako hainbat herrialdetan praktikak egiteko aukera dute. Horrela, ikasleen ikuspegi pertsonala zabal-



## Hezkuntza eskaintza:

### Goi-mailako heziketa-zikloak

- Automatizazio eta Robotika Industrial (A eredu) Automatización y Robótica Industrial
- Fabrikazio Mekanikarako Programazioaren Programazioa (A eredu) Programación de la Producción de la Fabricación Mecánica
- Haur-hezkuntza (D eredu)
- Osasun Dokumentazio eta Administrazioa (A eredu) Documentación y Administración Sanitarias
- Gizarte eta kirol-irakaskuntza eta animazioa (D eredu)

### Erdi-mailako heziketa-zikloak

- Telekomunikazio-instalazioak (A eredu) Instalaciones de Telecomunicaciones
- Mekanizazioa (D eredu)
- Karrozeria (A eredu) Carrocería
- Ibilgailu automobilen elektromekanika (A eta D ereduak) Electromecánica de Vehículos
- Erizaintzako zaintza osagarriak (D eta A ereduak) Aux. Enfermería
- Osasun-larrialdiak (D eta A ereduak) Emergencias Sanitarias

### Mekanizazio, konformazio eta muntaia prozesuen diseinua ziurtagiri profesionala

### Zereginen gela

### Lan-kompetentziak egiaztatzeko prozedurak

**Info+:** IDAZKARITZAN: 08:30etik 14:00etara egunero, eta 15:30etik 17:00etara astelehen, martitzen eta eguenetan. **ONLINE:** [www.fadura.eus](http://www.fadura.eus)

Aurrematrikula egiteko epea maiatzaren 4tik 22ra da. Informazio gehiago behar baduzu, hurbildu zaitez ikastetxera edo sar zaitez [www.fadura.eus](http://www.fadura.eus) webgunean.

tzen da, prestakuntza teknikoa eta gaitasun pertsonalak indartuz.

Elektronikaren arloan, **Fadura LHIIk** bi ziklo estrategiko eskaintzen ditu: Robotika eta Telekomunikazio instalazioak. Egun, irteera profesional eta eskari handikoak dira, eta ikasleei lan-merkatuan kokatzeko aukera sendoak eskaintzen dizkiete.

Bestalde, **Fadura LHIIk** balioetan oinarritutako hezkuntza sustatzen du —berdintasuna, jasangarritasuna eta inklusioa—, profesional kualifikatuak ez ezik, gizarteagaz konprometitutako pertsonak ere hezteko.

Azken batean, **Fadura LHIIk** prestakuntza praktikoa, berrikuntza eta aukera errealak eskaintzen ditu, etorkizuna eraikitzeko.



# Zuhaixkak loretan

**Apirilean egun hotz eta ilunak gero eta arraroagoak dira jada, neguan zehar gordeta eta babesean egon diren izaki bizidunen aktibitatearen eztanda suposatuz: udaberrian murgildu gara.**

INÁKI LARRETXI GALLASTEGI • LUKA MELENDEZ ARTEAGA ▶


**U**daberrian berpizten diren bizidun ugarien artean, landare goiztiarrenak loreekin janzten dira, eta zuhaixken loraldia bereziki nabarmentzen da horien artean. Haizearen bidezko polinizatzen direnak (anemofiloak) —hurritza adibidez— aurretiaz loratu badira ere, eguzki-orduek eta tenperaturak gora egin ahala polinizazioa burutzeko intsektuak erakarri behar dituzten espezieak (entomofiloak) loratzen hasten dira. Beraien loraketa goiztiar eta ugaria dela eta, intsusa (*Sambucus nigra*), zuhandorra (*Cornus sanguinea*), elorri zuria (*Crataegus monogyna*) eta elorri beltza (*Prunus spinosa*) nabarmentzen dira. Oraingoan, elorriei buruz mintzatuko gara.

**Elorri beltzaren hostoak osoak dira, hots, ertz erregulardunak; aldiz, elorri zuriarenak gingildunak dira, ertz irregularrekin. Udazkeneko fruituak urdin-moreak dira elorri beltzaren kasuan (basaranak, patxaran edaria ekoizteko erabiliak); elorri zuriarenak, ordea, txikerragoak eta gorriak dira.**

Elorriek —zuriak zein beltzek— udaberri hasieran zuritzen dituzte geure abaro, landamin edota bide-bazterrak, beraien usainagatik sarritan urrunetik antzeman ditzakegularik. Bi espezieen itxura orokorrari erreparatuz antzekoak izan arren (biak baitira zuhaixka arantzatsuak), ezaugarri gako batzuk daude modu errazean bereizteko. Alde batetik, elorri beltza loratu egiten da hostoak kimatzen hasi aurretik; oster, elorri zuria hostoberritu egiten da loraldia baino lehen. Ondoren, elorri beltzaren hostoak osoak dira, hots, ertz erregulardunak dira; aldiz, elorri zuriarenak gingildunak dira, ertz irregularrak dituztelarik. Azkenik, udazkeneko fruituak urdin-moreak dira elorri beltzaren kasuan (basaranak, patxaran edaria ekoizteko erabiliak); elorri zuriarenak, ordea, txikerragoak eta gorriak dira.

Aipatutako bi espezieen loraketa oparoak polinizatzaile ugari erakartzen ditu, nektar eta polen bila gerturatzen baitira: askotarikoa kakarraldoak, tximeletak, erleak, euliak, liztorrak... Aldi berean, intsektu-kontzentrazio handien atzetik harrapakariak ere ager-

Erlastarra eta erle basati bakartia elorri zuria polinizatzen.



# bideak zuritzen

tu ohi dira, hala nola Thomisidae familiako kideak, karramarro-armiarma bezala ezagunak. Araknido hauek kamuflajea adituak dira, eta espezie askoren loreetan egoten dira zelatari ea hurrengo polinizatzailea noiz agertuko den. Gutxi balitz, karramarro-armiarma batzuek argi ultramorea islatzen dute lorea polinizatzaileentzako erakargarriagoa izan dadin.

Halaber, bi elorrien hostoak zomorro ugariaren bazkalekua dira. Esate baterako, Erresuma Batuan 200 artropodo-espezietik gora topatu dira elorrietan: akaroak, tximeletak eta sitsak, kakarraldoak, euliak, etab. Are gehiago, espezie batzuentzako elorriak ezinbestekoak dira, *Iphiclides feisthamelii* tximeleta ikusgarriaren larbentzako kasu, elorri beltzaren hostoak elikatzen baitira.

Jakina denez, polinizazioaren ostean fruituak garatzen dira, udazkenean guztiz heldu arte. Orduan, hegazti askok fruituak jango dituzte migrazioan zehar energia lortzeko, baita neguari aurre egiteko ere. Trukean, hegaztiak azalera handietan sakabanatuko dituzte elorrien haziak, dispersioa izugarri emendatuz.



## Hesi biziak

Elorriek ezaugarri morfologiko bereziak dituzte belarjaleen presioari aurre egiteko: arantzak eta inausketari erresistentzia. Ezaugarri horiei esker, lursailen arteko mugak adierazteko erabili ditugu gizakiok. Gurean landare hauei erreferentzia egiten dieten hainbat izen ditugu: Elorrieta, Elordi, Elortza...

rrien haziak, dispersioa izugarri emendatuz.

Azkenik, elorrien morfologiak, eta zehazki beraien arantzek eta inausketekiko erresistentziak, aspalditik datorren istorio ebolutibo bat kontatzen dute; izan ere, elorriek beti egin behar izan diote aurre belarjaleen presioari (bisonateak, zaldi eta behi basatiak, ahuntzak...). Ezaugarri horiek direla eta, elorriek (elorrantzak gurean) garrantzia izan dute gizarte tradizioaletan, zeinetan hainbat erabilera izan dituzten, hala nola lursailen arteko muga eta hesi bizi gisa. Urrutira joan barik, Uribe Kostan bi espezieei erreferentzia egiten dieten hainbat toponimo topatu ditzakegu: Urdulizko Elortza auzunea, Leioako Elorrieta eta Barrikako Elordi etxaldeak, Getxoko Elorri kalea...

Beraz, hurrengo ibilaldietan ondo aztertu beharko ditugu zuriz jantzi diren zuhaixkak: arantzak, loreak, zomorroak... Udazkenean, aldiz, fruituei erreparatu beharko diegu, eta horiek jaten dituzten birigarroei, zozoei, txinbo-kaskabeltzei edota txantxangorriei. Batek daki non sakabanatuko dituzten elorrien haziak! ◀

Euliak eta *Cetonia* generoko kakarraldoa elorri zuria polinizatzen.



Thomisidae armiarma elorri zurian. Aurkitzerik bai?



**Txakomik** Kike Infame eta Maider Zalduondo

# Batzuetan, ideia handiak ustekabeen sortzen dira

**Intuiziotik sortutako proposamena da Txakomic, urteakaz sendotu egin den eta publiko gero eta zabalagoa erakartzen joan den ekimena bilakatu arte.**

IZARO GARCIA VELASCO ►

**T**xakolina eta komikia ez dira ohiko bikotea. Baina ideia xume batek, «txakoli bat hartu bitartean komikia egitea», kultura eta gastronomia uztartzen dituen egitasmo baten hasiera ekarri zuen. 2017an kokatzen da abiapuntua, euskal komikiaren historiari buruzko erakusketa batean. Gutxira, proposamenak bere bidea egiten hasi zen. «Zein ederra izango litzatekeen txakoli bat hartu bitartean komikia egitea», gogoratu du Kike Infame antolatzaileak hasierako une hura. Txakolingunean egindako erakusketatik abiatu zen dena; izan ere, Maider Zalduondo Uriarte beste antolatzaile baten esanetan, «txakolin botila bat hartu eta hortik tiraka hasi ginen».

Hasieran ia ustekabeen sortu zenak egitura hartu du. Egun, egitasmoak azoka, kontzertu marraztuak, argitalpenak eta dastaketak uztartzen ditu, esperientzia oso bat eskainiz. Baina funtsa mantentzen da: txakolina ohiko testuinguruetatik atera eta kulturagaz lotzea.

**BI MUNDU BIDE BEREAN.** Lehen begiratuan urrun egon daitezkeen arren, ekimen honen sortzaileek argi dute komikiaren eta txakolinaren arteko lotura badagoela. Izan ere, haien hitzetan, «bi esparruek pixkanaka beren prestigioa irabazi behar izan dute».

Urte luzez, komikia umeentzako entretenimendu hutsa bezala hartu izan da, eta txakolina kalitate apalagoko ardotzat. Egun, ordea, biak ala biak balioan jarri dira: komikia adierazpide kultural gisa, eta txakolina nazioartean lehiatzeko gai den produktu gisa.

Horixe da egitasmoaren muina ere; hots, ikuspegiak zabaltzea. «Helburua izan da txakolina ohiko testuinguruetatik ateratzea», azaldu du Infamek, kulturagaz duen lotura indartuz.

**GUZTIENTZAKO ESPERIENTZIA.** Egitasmoaren beste giltzarrietako bat aniztasuna da.



Kike Infamek eta Maider Zalduondok proiektua gorantz egiten ikusi dute. HODEI TORRES

**Bidea ez da erraza izan. Pandemiaren ondoren abiatu zen, eta hasierako urratsak motelak izan ziren arren, denboragaz Txakomic-ek bere lekua egin du, eta gaur egun jarduerak harrera beroa dute publikoaren aldetik. Hazkunde horretan, egokitzeko gaitasuna giltzarri izan da. Arduradunek diotenez, argi ikusi dute proiektuak gorantz egin duela, eta horren erakusgarri dira azken urteetako emaitzak.**

Programazioa adin guztietara egokituta dago, eta gune berean elkartzen dira familia osoak. «Xedea adin guztietarako egokitutako eskaintza bat egitea da», diote.

Horrela, umeek tailerretan sortzeko aukera dute, bitartean helduek bestelako jarduerak gozatzen dituzten bitartean. Esperientzia partekatu bat da, non sormena, gastronomia eta aisialdia modu naturalean uztartzen diren.

Parte-hartzaileak aukeratzekoan ere filosofia bera nagusitzen da: emaitza artistikoa baino, jendeagaz konektatzen duen esperientzia sortzea da gakoa.

Gainera, aurrenekoan, programazioa trinkotu dute, formatu argiagoa eskaini, eta aurreneko berrikuntza esanguratsu bat gehitu dute: azoka txiki bat, ilustratzaileek euren lanak erakutsi eta saltzeko aukera izan dezaten.

**AURREIRITZIAK HAUSTEKO ESPAZIOA.** Txakomic-en indarra aurreiritziak haustean datza; txakolina ez da etxeko ardo hutsa, ezta komikia umeentzat bakarrik ere, biak «unibertso aberatsak» baitira. Etorkizunean erronkak izango badira ere —bereziki finantziarioan eta berrikuntzan—, antolatzaileek baikor ikusten dute bidea. Azkenean, ekintzak erakusten du ustekabeko ideiek bide oparoak ireki ditzaketela. Eta hori da, hain zuzen, bere indargunea: ohikoa dena beste begi batzuek ikusteko aukera ematea. ◀

**Trabudu Dantza Taldea** 50. urteurrena

# «50. urteurrena esanguratsua da, baina 51.a are esanguratsuagoa izango da»



Trabudu Astrabuduko dantza talde ezberdinen batuketatik sortu zen. TRABUDU DANTZA TALDEA

IZARO GARCIA VELASCO ►

**M**ende erdi igaro da Trabudu Dantza Taldeak lehen urratsak eman zituenetik, eta Astrabuduko kaleetan oraindik piztuta dirau lehen egunean sortutako suak. «50 urte betetzea ohore handia da guretzat», diote taldekideek, jakitun ez dela erraza halako ibilbideari eustea, are gutxiago gaur egungo eskaintza zabalaren testuinguruan.

Hala ere, bada denborak higatu ez duen zerbait: lanerako grina. «Sekretua lana, lana, lana eta berriz ere lana da», diote labur. Ez da esaldi hutsa, urteetan ehundutako jarrera baizik. Eta lan horrek herria bera izan du sostengu gisa. Hots, boluntarioak, familiak eta belaunaldi desberdinak uztartuz, «Trabuduk komunitate baten babesa izan du hasieratik».

Bide horretan, urratsak ez dira txikiak izan. Urteotan, agertoki handiak zapaldu dituzte —Guggenheim, Bilbao Arena edo Euskal Museoa—, baina sustraiei eutsi diete. Are gehiago, herritik sortutako ekimenek nortasun berezia eman diote taldeari; Dantzaxori edo aurten antolatutako euskal ezkontza, kasu. «Euskal kultura herrira ekartzea» izan da beti haien xedea, eta bide horretan aurrera egiten ari direla uste dute.

Ez dira, ordea, iraganera begira geratu. Gaur egun, erronka nagusia gazteak erakar-

## Balioak

**Haria ez da inoiz eten: «Gure oinordetzarekiko dugun errespetua eta gure kultura bizirik mantentzeko dugun konpromisoa izan dira gidari».**



## Basque Fest

Duela aste gutxi batzuk, Astrabuduko Trabudu Euskal Dantza Taldeak Bilboko Basque Fest jaialdian parte hartu zuen, Guggenheim Museoa ondoan eskainitako emanaldi berezi batez.

tzea eta taldean mantentzea da. «Testuingurua aldatu da, baina konpromisoa bere horretan mantentzen da». Horren erakusgarri da azken hilabeteetan bizitakoa: eguraldiagatik Dantzaxori ikuskizuna bertan behera utzi behar izan zuten. «Inpotentzia» izan zen lehen erreakzioa, baina egoerari buelta ematen jakin izan zuten: martxoaren 8an kalera atera ziren, formatu berriagaz. Hortik harago ere egin dute jauzi; izan ere, ikuskizuna Hendaian aurkeztu dute, «ilusio handiz», eta euren lana «mugetatik haratago» ere baloratua dela sentituz.

Hala, 50. urteurrena ez da soilik ospakizun bat izango, atzera begiratzeko une bat ere izango da: hasierako pauso haiek eman zituztenak gogoratzeko, eta belaunaldi desberdinak batuko dituen alardea prestatzen ari dira; iragana eta oraina, etorkizunari begira.

Eta etorkizun hori da, hain zuzen ere, taldekideek buruan dutena: «50. urteurrena esanguratsua da, baina 51.a are esanguratsuagoa da». Izan ere, ospatzea garrantzitsua bada ere, jarraitzea da benetako erronka.

Baliteke, horregatik Trabudu dantza talde bat baino gehiago izatea. «Bizimodu bat» dela diote. Hor dago, akaso, bost hamarkadako ibilbidearen muina. Eta horregatik, 50 urteak ez dira helmuga bat, hasiera bat baizik. ◀

Marisa Lago Otxoa Ipar martxa

# «Hau probatzen duena engantxatu egiten da»

ANDER ZARRAGA ▶

**G**ero eta ohikoagoak dira bastoiakaz, oinez, baina ziztu bizian, gure inguruko ibilbideetatik aritzen direnak. Martxa nordikoa edo ipar martxa egiten ari dira, 30. hamarkadan Finlandia-ko eskiatzaileek entrenatzeko erabiltzen hasi ziren ibiltzeko teknika berezia. Eskualdean, Gorkizen dago zaletasun handiena, hilerero ateraldiak egiten baitituzte eta maiatzean Martxa Nordikoaren Nazioarteko Eguna ere ospatuko baitute. Gorkizen txangoak gidatzen dituen Marisa Lago Otxoa Euskaditrek kooperatibako kideak eman dizkigu xehetasun guztiak.

**Zeintzuk dira kirol honek dituen onura nagusiak?** Oso osasungarria da. Ibiltzearen patroia jarraitzen du, baina plus bat gehitzen dio: kardioko ariketa handiagoa da eta postura asko zaintzen du. Nik 'Pilates mugimenduan' dela esaten dut. Bastoiak diagonal teknika baten bidez erabiltzen dira, eta horrek enborra zuzen mantentzera behartzen zaitu. Gainera, talka baxuko kirola denez, oso inklusiboa da: adinekoak, gazteak, edota Parkinson bezalako patologiak dituzten pertsonak etortzen dira gure irteeretera.

**Materialari dagokionez, mendiko bastoiak erabili daitezke?** Ez, bastoiak espezifikokoak dira. Gorkizko irteeretan guk uzten dizkiegu bastoiak ez dituztenei. Diferentzia nagusia 'dragonera' edo eskularru moduko heldulekua da; horren bidez transmititzen da indarra bastoira, eta asfaltoan ibiltzeko gomazko babesak jartzen ditugu bibrazioak ekiditeko.

**Nola antolatzen dituzue irteerak Gorkizen?** Hilean behin egiten dugu, zapatuetan normalean (uztailean eta abuztuan izan ezik). Urtean 12 saio dira guztira. Hastapen tailer labur batez hasten gara eta ondoren udalerriko txoko desberdinak ezagutzera joaten gara. Ariketa fisikoa egiteko aitzakiagaz, turismoa ere egiten dugu; askotan, bertako herritarrek ere ezagutzen ez dituzten txokoak eta historia deskubritzen ditugu.



Hilerro Gorkiz modu osasuntsuan ezagutzeko ateraldiak antolatzen dituzte. EUSKADITREK



«Ariketa fisikoa egiteko aitzakiagaz, turismoa ere egiten dugu; askotan, bertako herritarrek ere ezagutzen ez dituzten txokoak eta historia deskubritzen ditugu»

«Gorkizek hasieratik sinistu du kirol honetan eta horregatik gure irteeretako taldeak beti betetzen dira»

**Gorkizen bi ekitaldi oso garrantzitsu dituzue aurten, ezta?** Bai, bi data azpimarratu behar dira: batetik, maiatzaren 17an Martxa Nordikoaren Nazioarteko Eguna egingo dugu eta Gorkizen 250 pertsona inguru biltzea aurreikusi dugu. Beroketa musikala eta 7 kilometroko ibilbidea egingo ditugu egun horretan; oso giro polita izaten da. Bestetik, urrian Txapelketa federatua egingo da (Euskal-Nafarroako Kopa edo Liga). Hori ikustea ikusgarria da, kirolariak oso azkar doazelako eta teknika zorrotza erabili behar dutelako.

**Zergatik dago hainbeste zaletasun Gorkizen?** Gorkiz eredugarria da. Udalak eta herritarrek erraztasun guztiak ematen dizkigute: guneak, polikiroldegia... Bilbon, adibidez, askoz zailagoa da horrelakoak antolatzea. Gorkizek hasieratik sinistu du kirol honetan eta horregatik gure irteeretako taldeak beti betetzen dira.

**Zer esango zenioke oraindik probatu ez duen horri?** Probatzeko. Askotan, makilen kontu hori dela esaten dute mespretxuz, baina probatzen duena engantxatu egiten da. Oso kirol integratzailea da eta norberaren mailara egokitu daiteke: osasuna mantentzeko, sasoiaren egoteko edota lehiatzeko. ◀

## Lemoizko ahaztutako naturgune



### ETZANDARRI MENDI TALDEA

**A**zken asteetan argitaratutako albistearen aurrean, Etzandarrri Mendi Taldeak Lemoizko itsaslabarrak Naturagune babestua proposamenaren egileak, bere iritzia kaleratu nahi izan du.

Argi dago, gure politikari eta agintariek ez dakitela ezer Lemoizko zentral nuklearrak hartzen duen eremu naturalaren hedaduraz eta bere balio ekologikoaz, geologikoaz eta paisajistikoaz; beraz, zera gogorarazi nahi diegu: zentral nuklearraren instalazioek, naturgune horren zati txiki bat baino ez dute okupatzen.

184 hektareako lursailak ari gara, eta zentralaren hondakinaz gain, itsas-labarrak, flysch beltzez osatutako marea-zabalgune bat, sei ibai, urtegi bat, landazabalez inguratutako bi baserri, bertoko arte eta haritzen zuhaitziak, hostozabal desberdinen landaketak eta balio ekologiko eta paisajistiko handiko lursailak, espezie inbaditzaileek degradatuak eta inbadituak topatuko ditugu bertan.

Uste dugu, ezer baino lehenago, beharrezkoa dela, planteamenduan zentral nuklearrak baino, zentral nuklearrak okupatutako naturguneaz hitz egitea eta honen balio ekologiko, geologiko eta paisajistikoa aitortzea. Beraz, Noizko naturgune berreskuratzeko plan integral bat? Ordua heldu dela uste dugu.

## Aurreikuspen aspergarriak



### GORKA MOSTAJO GALDUROZ Gizarte-langilea

**T**elebistako berriak ikusteko ohitura dugunok, aurreikusi daitezkeen berri batzuk buruz ikasi ditugu. Ez da kritika, normala da, batzuek ez baitute «gehiagorako ematen». Gabonetako loteria da horren adierazle: xanpaina, billetea azken unean kasualitatez erosi dutenak, zozketara doazenak...

Atharratzetik abiatu zen Korrikak ere, bazituen aurreikusi zitezkeen anekdotak: jendetza hasieran zein amaieran, furgonetan doazenen kontakizunak, eroriak, dantza taldeak, giro aparta... Ederra da hori, Korrika bera ederra delako. Tamalez, bazituen ere espero genituen beste aurreikuspen batzuk: Korrika eta euskararekin zerikusirik ez duten pankartak eta aldarriak (presoak, amnistia, Irango estatu teokratikoko banderak...) eta aurreikus zitezkeen ikamikak. Zoritxarrez, ordea, aurtengoak ere azken uneko sorpresa izan du, AEKren arabera anitza omen zen gazte talde bat gorabehera.

Euskarak dibertsitatea behar du, baina Korrikak saltzen duena baino handiagoa. Korrika beste helburu batzuetarako erabiliko ez balitz, Korrika anitzagoa litzateke eta neurri batean AEKren esku dago hori. Ea datorren Korrikak zenbait aurreikuspenetan kale eginarazten gaituen. Eskertuko (ge)nuke, baita euskarak ere.

## Horoskopoa



### Ura (Abenduak 21-Urtarrilak 19)

Kontuz, udaberria eta gero uda dator, eguzki izpiak etengabe xurgatzen hasten bazara, uda heltzerako mahaspasa bat izango zara.



### Otsoa (Urtarrilak 20-Otsailak 18)

Gutxi falta da azterketetarako, dena azken unerako uzten ari zara, ohiko lez. Tira, baduzu adintxo bat...egin ahalegin txiki bat gutxienez!



### Adarra (Otsailak 19-Martxoak 20)

Ez galdu hainbeste denbora mugikorrean, bada-kizu eguna amaitzean damutuko zarela. Hartu bizikleta eta gozatu arrastiak!



### Aitzurra (Martxoak 21-Apirilak 19)

Udaberria sudurzuloetan nabaritzen duzu: mukiak, begietako azkura, doministikuak... Urteroko kontu bera. Lasai, pasako da eta.



### Hostoa (Apirilak 20-Maiatzak 19)

Atera kalera, hartu bitamina D, ikusi lagunak, dastatu zure herriko pintxoak... dena ez dago pantaila baten aurrean, altxa sofatik!



### Eguzkia (Maiatzak 20-Ekainak 18)

Udaberri honetan albiste asko jasoko dituzu; batzuk euri zaparrada moduan eroriko zaizkizu; beste batzuk, eguzki izpi zoragarrien modura.



### Garia (Ekainak 19-Uztailak 18)

Eguzki krema laster prezioz igoko da, beraz, zoaz uda osorako pote pareta erostera eta hasi erabiltzen bihartik aurrera.



### Lastoa (Uztailak 19-Abuztuak 17)

Azken boladan nahiko txarto pasatu duzu, dena txarto ateratzen zaizu eta negar egiteko gogoaz duzu; pentsatu duzu norbaitegaz hitz egitea?



### Iratzea (Abuztuak 18-Irailak 16)

Bizilagun berriak ezagutzen dituzu? Ziur horien artean merezi duten pertsona maitagarriak ere badirela. Hasi ate joka eta eskatu gazta.



### Meta (Irailak 17-Urriak 16)

Oraindino udako bidaiia bat ere prestatu gabe zaudela? Eskualdean hamaika leku zoragarri dituzu egun-pasa egiteko estresatu gabe!



### Hazia (Urriak 17-Azaroak 15)

Psikologikoki bada ere, uda sentituko duzu eta kalean denbora gehiago egoteko gogoaz sartuko zaizu! Egin jaramon sentipen horri!




### Negua (Azaroak 16-Abenduak 20)

Zure urteko sasoiak bukatu da, bero eta itolarririk datoz hemendik aurrera. Hartu pazientziagaz eta aire girotua jarri behar baduzu.

# Hirukira olgetan

© GARBIÑE UBEDA




## Aldea dago!

Erreparatu ongi euripeko irudi hauei. Biek berdin-berdinak diruditen arren, aldea dago batetik bestera.


Aurki itzazu 12 ezberdintasunak.

**Margotu** Marraztu zure burua leiho batean, eta nahi duzuna bestean. Ondoren, margotu.






## Domino zerutiarra



Zerura begirata ikus daitezkeen sei gauzak osatzen dute domino hau.



## Kuboa

Kubotxo osaturiko kubo bat egin nahiko genuke. Zure ustez, zenbat kubotxo falta zaizkigu denen artean kubo handia osatzeko?

- Bost
- Sei
- Zazpi
- Zortzi

## Biki bi eta hiruki bat

Gauza hauen guztien artetik bi bikoiztuta daude, hau da, bi aldiz ageri dira. Eta beste gauza bat hiru aldiz errepikatuta dago. Ea aurkitzen dituzun.



## SOLUZIOAK:

AURREKO SOLUZIOAK

Bete itzazu sudokua honetako hutsuneak HODEIA hitza osatzen duten hitzak behar bezala ipiniz. Hodeiak eta A, H, O, I, E, A hitzak dituen letra, zutabe eta erua bakoitzeko.

A	I	O	E	D	H
E	H	D	I	A	O
I	E	H	A	O	D
D	O	A	H	I	E
H	D	I	O	E	A
O	A	E	D	H	I

Sudokua

**Mezu gordea**

Ernati murrizkizko behar izan dezakeen hitza bete azpiko birniluen, eta irakoleraze paimera erredioa jaten ari denak, zer esan duen jakinigo daz. Firtxo bat esan duen zain bat da. Erdilli hitz-murrizki diribetioa.

**Erreze-murrizkiak**

A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z
---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---



# «Txundituta geratu nintzen; leku hau ikaragarria da»

IZARO GARCIA VELASCO ▶

**E**uria ari zuen Oscar Euskal Herrira iritsi zenean. Urria zen eta egunak luze egiten zitzaizkion. Orduan galdetu zion bere buruari ea toki egokira etorri ote zen.

Oscarrek, bere sorterriaz hitz egitean, Valeratik (Venezuela) hurbil dagoen *La Puerta* ekarri du gogora, Andeen hasiera iradokitzen duen mendialdea. Gainera, Trujilloko patrioiaren omenean egindako monumentua nabarmendu du: 40 metro baino gehiagoko altuera du, «izugarria» da, eta inguruko paisaia andinoen ikuspegi eskaintzen du. Gaur, ordea, Armintzan bizi eta Mungian egiten du lan sarrailagile modura.

20 urtegaz utzi behar izan zuen Venezuela, egoera sozioekonomikoak bultzatuta. Ikasketak ere erdibidean utzi zituen, eta lehen geldialdia Argentinan egin zuen. Han ezagutu zuen egun bere emaztea dena; eskutik helduta iritsi ziren hona, hasieran guztia urrunegi ikusten zuten arren. «Ez nuen etorri nahi», gogoratu du.

Baina lehen begiradak askotan ez dira azkenak izaten. «Txundituta geratu nintzen; leku hau ikaragarria da». Pixkanaka, arrotza zena


ohiko bihurtu da: kalera irten eta herriko beste bat dela sentitzen du. Jendea, hasieran itxia dirudiena, gertukoa dela dio: «Beldur pixka batekin etorri nintzen, ez nekien nola hartuko ninduten, baina kontrakoa izan da».

Bere bizitzak beste zapore batzuk ere hartu ditu. Itsasoarenak adibidez: erreboiloa, aitagina-rrebaren eskutik prestatutako arraina. «Arraina prestatzeko duen modua beste maila batekoa da», esan du. Halere, urrutiko zaporeek ere badute lekua sukaldian; Venezuelako plateretan, etxearen arrastoa gordetzen du oraindik: «Plater bakarrean dena sartzen dugu: arroza, haragia, babarrun beltzak, banana frijitua eta arrautza».

Ez da dena erraza izan. Eguraldia, ohiturak... guztia zen berria. Baina denborak bere lana egin du. «Lan egonkor batekin, hemen oso ondo bizi da», dio, eta batez ere jendearen harreragaz gertzen da: «Besoak zabalik hartu naute».

Orain, hemen errotuta dago. Ezkondata dago eta laster aita izango da. Etorkizuna ere hemen irudikatzen du, noizbait Venezuelara itzuli nahi duen arren, bere familiak alaba ezagutu dezan.

Batzuetan, bideak gura gabe hasten dira. Eta, konturatu orduko, etxea bihurtzen dira. ◀



**Oscar Brillembourg Rodriguez**

**Nongoa**  
Armintza.

**Adina**  
30urte.

**Zertan dabil**  
Lanean.

**Noiz heldu zinen?**  
2023ko urrian.

**Noiz arte bertan?**  
Auskalo.



**Lurraldea**  
Venezuela.

**Azalera**  
916.445 km<sup>2</sup>.

**Hiriburua**  
Caracas.

**Biztanleria**  
28.300.000 (2023).

**Hizkuntzak**  
Hizkuntza nagusia gaztelania da. Hala ere, 30 hizkuntza indigena baino gehiago daude.

**Moneta**  
Bolivarra edo dolarra.

# TXAKO

*mic!*

**Apirilak 17-18 Abril**  
Mendibile Jauregia  
(Leioa)

Marrazketa zuzenean  
Showcooking  
Dastaketak  
Tailerrak  
Musika

**GALIZIA**  
Eskualde gonbidatua

**Apirilak 19 Abril**  
Txakolin Museoa  
Txakolingunea (Bakio)

Dibujo en vivo  
Showcooking  
Catas  
Talleres  
Música

**GALICIA**  
Región invitada



**Zurrut!**

Komiki eta Ilustrazio Azoka  
Feria de Cómics e Ilustración

Informazioa eta erreserbak  
Información y reservas  
[bizkaikotxakolina.eus/txakomic](http://bizkaikotxakolina.eus/txakomic)



## Bigarren Errepublikaren aldarrikapena Uribe Kostan

**1931** ko apirilaren 14an, Espainian Bigarren Errepublika aldarrikatu zenean, Uribe Kostako udalerrietan aldaketa sakon bat gertatu zen, baina hori ez zen berdin eman herri guztietan. Adibidez, eskualdeko landa-eremuan, Urdulizen, Barrikan edo Sopelan kasu, apirilaren 12an ez zen hauteskunderik egon, zinegotziak 1907ko legearen 29. artikulua bidez izendatu baitzituzten, alderdien arteko talka ekiditearren.

Urdulizen, Errepublikako lehen udalbatza apirilaren 18an eratu zen Pedro Goirigolzarri alkate zela, eta 1930eko *dictablanda* garaiko zortzi zinegotzietatik zazpik jarraitu zuten karguan, nolabaiteko jarraitutasun administratiboa erakutsiz. Plentzian eta Gorlizan, berriz, giroa biziagoa izan zen: apirileko emaitzak baliorik gabe geratu ostean, hauteskundeak maiatzaren 31n errepikatu zituzten eta indar errepublikanoek zein abertzaleek garaipen esanguratsuak lortu zituzten. Orduko Plentziako aldarrikapena oso ospetsua izan zen, suziriakaz eta tren-gelotik udaletxeraino egin zuten segizioagaz ospatu baitzuten, non ikurrina eta Errepublikako banderak elkarregaz eraman zituzten.

Getxon, Jose Antonio Agirre jeltzaleak eskuratu zuen alkatezta, baita pauso bat harago joan ere: Euskal Errepublika ere aldarrikatu zuen, «Espainiako Errepublikaren federazioaren barruan». Beste udalerrri batzuetako alkateak batera, Agirrek deia egin zien Bizkaiko beste udalerrietako ordezkariak ere ekimenagaz bat egin zezaizten. Besteak beste, Plentzia batu zen aldarrikapen horretara.

Aldarrikapen hartan eskualdea banatuta geratu zen politikoki, EAJ nagusi izan baitzen landa-eremuetan zein Getxon; errepublikanoak eta ezkertiarak Plentzia edo Erandio bezalako herrietan gailendu ziren. Tentsio horren adibide dira 1935eko Getxoko jaietan egon ziren tirabirak: herritar batzuek Errepublikako bandera edo ikurrina jarri beharrean, bandera tradizionalistak jarri zituzten eta horrek liskarrak eragin zituen. Era berean, erlijioaren inguruan ere ikamika egon ziren, gobernuak bultzatutako neurri laizistek irudi erlijiosoak kentzeko agindu baitzuten, eta horrek talka egin zuen zuzenean orduko euskalgizarte katolikoagaz.

Errepublikaren etorrerak, gainera, emakumeen parte-hartze politikoaren loraldia ere ekarri zuen, eta, berbarako, Urdulizen Emakume Abertzale Batza (EAB) 1932an sortu zen, denbora gutxian 140 kide lortu zituenak. ◀



JOSE ANTONIO AGIRRE GETXOKO ALKATE IZENDATU ZUTEN 1931KO HAUTESKUNDEETAN. ARGAZKIA: PASCUAL MARTIN.



BIGAREN ERREPUBLIKAREN ALDARRIKAPENAK ITXAROPEN ETA ALDAKETA POLITIKOZ BETERIKO ARO BATI HASIERA EMAN ZION. ARGAZKIA: KUTXA FOTOTEKA.

# HIRUKA lagunen txokoa Sari ederrak eskura!

Zozketa

## La Fiambrerako oilaskoa

Bertako produktuakaz maitasunez ekoiztutako bazkariak gozatu gura duzu? Eramateko 2,5 kiloko oilaskoa, guarnizioagaz, barazkiakaz, entsaladagaz eta patata pureagaz dugu zozkagai.

Zozketan parte hartu gura baduzu, maiatzaren 3a (domeka) baino lehenago jakinarazi zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hemen:  
Zozketak ataleko formularioa [HIRUKA.eus](http://HIRUKA.eus) webgunean.



Zozketa

## Errigorako kutxa

Udaberrian Nafar hegoaldeko uzta eskutik eskura zabaltzeko kanpaina abiatu du Errigorak. Hala, urtero legez, saskiak ditugu zuon artean banatzeko. Eskuratu gura duzu bat?

Zozketan parte hartu gura baduzu, maiatzaren 3a (domeka) baino lehenago jakinarazi zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hemen:  
Zozketak ataleko formularioa [HIRUKA.eus](http://HIRUKA.eus) webgunean.



Zozketa

## Badator Go!azen 12.0!

Maiatzaren 10ean, Basakabiko gazteek saio bikoitza eskainiko dute Muxikebarrin. Euskarazko ikuskizun honetaz gozatzeko sarrera bikoitza zozkatuko dugu. Galduko duzu?

Zozketan parte hartu gura baduzu, maiatzaren 3a (domeka) baino lehenago jakinarazi zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hemen:  
Zozketak ataleko formularioa [HIRUKA.eus](http://HIRUKA.eus) webgunean.



## Zelan egin HIRUKA lagun?

**Webgunean:** [hiruka.eus/harpidetza/laguna](http://hiruka.eus/harpidetza/laguna)  
**Idatziz:** [hirukakoop@hiruka.eus](mailto:hirukakoop@hiruka.eus)  
**Deituz:** 944 911 337 • 688 812 368

**Urtean 35 euroren truke,** Uribe Kostako euskarazko komunikazio-taldearen bultzatzailea eta partaidea izango zara.



# UMORE AZOKA

XXVI FERIA DE  
ARTISTAS CALLEJEROS  
DE LEIOA

MAIATZAK 14, 15, 16, 17 MAYO 2026

